

hh
hik hasi

Bernat Etxepare Lizeoa
Hezkuntza-berrikuntza Estonian
Sakanako eskola txikiak
Egingo al dugu antzerki bat?
Sortzen-ek 25 urte
Euskararen arnaguneetako ikasleak
Zirkua, baliabide pedagogiko gisa



“ Emoziorik gabe motibaziorik ez dagoen gisan,
afekturik gabe ere ez dago ikaskuntzarik ”

SILVIA PALOU

LUK eta AMETO

Euskal Herriaren historia



IPUIN BERRIAK



Zazpi Kaleetako eskola

BILBO: langile mugimendua eta abertzaletasunaren sorgune.



Ikastola armairu barruan

DONOSTIA: lehenengo ikastolen sorrera.



Martxa eta borroka!

80ko HAMARKADA: intsumisia, gaztetxeak, soldaduska, musika...



**EZAGUTZA
LIBURUA**



AURKIBIDEA

GAIA / 10

BERNAT ETXEPARE LIZEOA

Baxoa azterketan lortutako emaitzak medio Frantziako Lizeo onenen artean izendatu dute Bernat Etxepare Lizeoa. Emaitza horiek, ordea, ez dira urte bakarreko urrea, 25 urteko ibilbidean lorpenen erregularitasuna izan baitu ezaugarri lizeoak. Izaera kolektiboaren lanketak eta euskara hutsean bizitzeko espazioa izateak ere nabarmentzen dute.

ELKARRIZKETA / 18

SILVIA PALOU

Haur Hezkuntzako irakaslea eta psikologoa izateaz gain, heziketa psikosozialean eta emozionalean aditua da Palou. Haurren garapen emozionalari buruzko ikastaroa eman du Donostian, Hik Hasik 0-3 urte arteko hezitzaileentzat eskaintzen duen formazioan. Bere esanetan, emozioak zentroan jarrita jardun behar luke eskolak.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantazu Muñoa.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines

Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: GrafIk.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2016-05-26).

Kopurua: 3.800 ale.

Hik Hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Pertsonekin lanean

10 GAI NAGUSIA

Etxepare lizeoa. Argi-izpia iparraldeko hezkuntza-sisteman

18 ELKARRIZKETA

SILVIA PALOU

“Emozioak dira giza harremanen motorra eta gure bizitzako elementurik garrantzitsuenak”

24 ESPERIENTZIAK 1

Hezkuntza-berrikuntza Estonian

28 ESPERIENTZIAK 2

Sakanako eskola txikiak. Iturri zaharreko ur berria

30 ESPERIENTZIAK 3

Garapenerako hezkuntza antzeppenaren bidez

34 EKARPENAK

Sortzen Elkartea. 25 urte euskal eskola publiko berriaren alde lanean

36 GALDEIDAZU

XABIER AIZPURUA UGARTE

Nola eragin euskararen arnaguneetako gazteen hizkuntza jarrera eta ohituretan?

40 PROPOSAMENA

Zirkua baliabide pedagogiko gisa

42 ATZEKO ATETIK

Garbiñe Petriati

Egin IRRIAREN HARPIDETZA... eta jaso gure MOTXILA ederra!



IRRIA ALDIZKARIAREKIN:

- ✓ Haurren irakurzaletasuna sustatu eta balioetan hezi
- ✓ Babestu Irrien Lagunak Kluba egitasmoa eta behar bereziak dituzten haur eta familien elkarteak (bizipoza.org)

- ✓ Hilabetekaria, urtean 10 zenbaki, etxean
- ✓ 44 orrialde, koloretan, komiki eta denborapasekin!
- ✓ Jaso klubeko bazkide txartela

NON EGIN HARPIDETZA?

1. Elkar dendetan
2. Katxiporretaren Ikuskizunetan
3. 902820806ra deituz
4. www.irrienlagunak.eus-en
5. www.irrienlagunak.eus/harpidetza orrian



Pertsonekin lanean

editoriala

IRAKASLEOK GELAKO GIRO EMOZIONALA SORTZEKO GAITASUNA DUGU; EZARRI DEZAKEGU BELDURREZKO GIROA, UMOREZKOA, GOXOTASUNEZKOA... BAINA HORRETARAKO LEHENDABIZI EZINBESTEKOA DA GURE BURUAREN LANKETA EMOZIONALA EGITEA.



Emozioak dira giza harremanen motorra eta bizitzako elementurik garrantzitsuena, eta, beraz, hezkuntzan ere hala izan behar lukete. Argi dio Silvia Palou heziketa emozionaleko adituak aldizkari honetako elkarrizketa nagusian: “Emoziorik gabe motibaziorik ez dagoen gisan, afekturik gabe ere ez dago ikaskuntzarik”.

Asko hitz egiten da eskoletan heziketa emozionalaz. Emozionalki haur autonomoak eta orekatuak heztea izan liteke xedea. Eta saia gaitezke formatzen, adimen emozionalari gure ikasgeletan tokia egiten, haurrekin harreman afektiboak sortzen, esaten eta egiten dugunaren artean koherentzia gordetzen, komunikazio kanal egokiak irekitzen... Eta egin diezaiokegu eskolan behaketari eta hausnarketari lekua, ikas dezakegu jarrera baikorra izaten, umore onez jarduten, haurrei aktiboki entzuten...

Baina pertsonekin lanean ari garenean hain samurrak al dira kontuak? Hori guztia aintzat hartu eta bizpahiru formula aplikatzea nahikoa ote da? Eta gidalerro horiek denak

gure jardunean txertatzen saiatuta ere, balio ote diezaguke ahalegin horrek gure buruaren kontzientzia emozionalik ezean?

Gure jarrerak eta jokabideak, hein batean, gure barrualdearen ispilu izan ohi dira. Uste dugunaren, pentsatzen dugunaren, desio dugunaren eta sentitzen dugunaren islarik gardenena. Eta horixe gertatzen zaigu irakasle lanean ari garenean ere: gelako giroa edota tono emozionala sortzeko gaitasuna dugula; ezarri dezakegu beldurrezko giro emozionala, umorezkoa, goxotasunezkoa, enpatiazkoa, ziurtasunezkoa... Gure esku dago, baina horretarako ezinbestekoa izango da geure buruaren lanketa emozionala egitea.

Alfredo Hoyuelos Iruñeko haur-eskoletako taileristak behin baino gehiagotan gogoratu izan digun moduan, “ezin dugu ondo hezi gure emozioak ez baditugu tratatzen. Haurraren frustrazioak, negarrak, kasketak... akonpainatzen jakiteko, gure frustrazioak, negarrak, kasketak analizatu behar ditugu. Hortaz, hezitzaile onak izan nahi badugu, oso garrantzitsua da gure emozioak ulertzeko eta komunikatzeko gai izatea”.

“Espainiar kulturaren pisua hain handia da, ezen modu batean zapaldu egiten baitu euskal kultura. Ez dago orekarik bien artean”

Gemma Zabaleta



ELA-K SALATU DUENEZ, 3.600 IRAKASLE KENDU DITU JAURLARITZAK RATIOEN BIDEZ

ELA sindikatuak hezkuntza alorrean azken urteetan izandako murrizketak aztertu ditu eta, ondorioztatu duenez, inbertsio txikienetarikoa egiten duen eremua da Hego Euskal Herria, Europako gainerako herrialdeekin alderatuz. Gainera, salatu dute ikasleen ratioa handituta 3.600 irakasle postu gutxitu dituela Eusko Jaurlaritzak. EAEn 2009an baino 40.000 ikasle gehiago daude orain, baina irakasleen ehunekoa ez da igo maila berean: 2009an 17,4 ikasle ziren gela bakoitzeko sare publikoan, eta aurten 19,6; itunpekoan, berriz, 20,7 ikasle ziren irakasleko 2009an, eta 22,8 aurten.

IPARRALDEKO ETA BIZKAIKO IKASTOLEK BERAIEN FESTA EGIN DUTE

Maiatzaren 8an egin zuten Ipar Euskal Herriko ikastolek beraien besta, Herri Urrats, alegia. Urtero legez, Senpereko lakuaren bueltan elkartu ziren milaka lagun, Iparraldeko ikastolak babesteko. Maiatzaren 29an, berriz, Bizkaiko ikastolek hartu zuten erreleboa, eta Durangon ospatu zuten Ibilaldia. Bi ekitaldietan, herritarrenaz gain, erakundeetako ordezkarien babesa eta parte-hartzea izan zuen Ikastolen Elkartek.

178 ikastetxetan 'plantoa' egin diote Lehen Hezkuntzako 3. mailako azterketari

Hezkuntza Plataformen Topaguneak jakinarazi duenez, EAEko 178 ikastetxek *plantoa* egin diote LOMCEk ezarrita Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleek egin beharreko azterketari. Bigarren urtez egin diote uko hainbat ikastetxek azterketa egiteari, "azterketa hau egiteak LOMCEren aplikazioan sakontzea" dakarrelako. Topaguneko kideak gustura agertu dira lorpenarekin: "Irakasleak eta batez ere familiak elkarlanean aritu dira *plantoa* antolatu eta azterketa ez egiteko alternatibak bilatzen. Emandako dozenaka hitzaldi eta egindako ehunka bilerek beren fruituak eman dituzte". Aurrera begira "gure hezkuntzak behar duen ebaluazio ereduaren inguruan eztabaidatu, adostasunak bilatu eta eraikuntzari ekin" nahi diote.

Bestalde, Espainiako Hezkuntza Ministerioak LOMCE legeari eginiko aldaketen arabera, aurrerantzean erkidegoetako gobernuek izango dute eskumena DBH eta Batxilergo amaierako azterketen edukiak eta datak zehazteko; dena dela, funtsa ez da aldatu, eta azterketa horiek gaitzitezkoak derrigorrezkoak izaten jarraitzen du DBHko edo Batxilergoko tituluak eskuratzeko. Eusko Jaurlaritzak jakinarazi du datorren ikasturtean selektibitate azterketari eutsiko diola eta ez dela izango Batxilergo amaierako azterketarik.



HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria



HERRI HEZITZAILEEK BERAIEN LANA EZAGUTZERA EMAN DUTE

OinHerrik antolatuta, maiatzaren 21ean herri hezitzaileen inguruko jardunaldia egin zen Zestoako Herri Ikastetxean. Lorea Agirrek haurren kulturaren inguruan egindako aurkezpenak gaia kokatzeko balio izan zuen, eta, ondoren, hainbat herritan haurrekin eta nerabeekin egiten diren zenbait praktika hezitzaile eta parte-hartzaile aurkeztu zituzten. Hortik abiatuta, taldetan elkartu eta gogoeta egin zuten parte-hartzaileek, eta aurrera begira herri hezitzaileen sarea nola elikatu eta antolatu aztertu zuten.

Iruñeko beste bi haur eskolatan euskarazko eredia jartzeko prozesua eten dute auzitegiek

Guraso baten salaketa tarteko, Iruñeko Administrazio Epaitegiak eten egin du datorren ikasturtean Iruñeko beste bi haur eskolatan euskarazko eredia jartzeko prozesua, "inposizio bat" delakoan eta familia erdaldunei kalte egiten dielakoan. Iruñeko Udalak erabaki horren kontrako errekurtsioa aurkezteko asmoa adierazi du, eta hainbat familiak ere mobilizazioen bidez erakutsi dute euren desadostasuna erabakiarekin. Gaur egun Iruñeko 17 haur eskoletatik bik besterik ez dute euskarazko zerbitzua ematen.





'IRUTEN' TRESNA AURKEZTU DU LAB SINDIKATUAK EUSKAL HERRIAK BEHAR DUEN HEZKUNTZA EREDUA DENEN ARTEAN ADOSTEKO ETA ERAIKITZEKO



Euskal hezkuntza-sistema propiorako bidean tresna eraginkorra izan daitekeelakoan, *Iruten* dinamika aurkeztu du LAB sindikatuak, Hego Euskal Herriko irakaskuntza arloko hainbat langile protagonista hartuta. Hezkuntza eremuan "objektu izatetik subjektu izatera" jauzia ematea du xede. Ruben Iglesias LABeko Hezkuntza Politikako arduradunak azaldu bezala, hezkuntzari dagokionez herritarrek dituzten beharrak, nahiak, ametsak... egingarriak izan daitezke txikitik eraginez gero, horregatik "ez dugu uste modurik aproposena Hezkuntza Sailei so geratzea denik, eurek zer esango zain. Guk geuk, herritarrok ere burutu beharko genituzke hausnarketak eta eztabaidak, denon artean adosteko eta eraikitzeke Euskal Herriak behar duen hezkuntza eredua".

Hala, lau xede nagusi oinarri hartuta abiatu dute *Iruten* dinamika. Hasteko eta behin, euskal hezkuntzaren helburuen gainean gogoeta egitea; alegia, hezkuntzak pertsonen garapenerako duen garrantziaz jabetzeaz gain, herri baten nortasunaren eta kulturaren transmisiorako jokatzeko duen funtzioaz hausnartzea. Bigarrenik, hezkuntzaren arloan dihardutenen artean esperientziak, zalantzak edota iradokizunak partekatzea: "Beharrezkotzat jotzen dugu norberak bizi duen esparrutik hezkuntzari bere ekarpena egitea". Hirugarren xedea da Euskal Herriak behar duen eskola eredua gaineke adostasunak biltzea: "XXI. mendeko Euskal Herriarentzat baliagarria izango den hezkuntza formulazio berria behar dugu, teoria eta praxiaren dialektikaren baitan eman beharko dena". Eta laugarren tokian eta amaitzeko, hezkuntza-sistema propiorako bidean tresna eraginkorra osatzea.

EUSKARAREN ALDEKO MANIFESTAZIOA EGINGO DA EKAINAREN 4AN IRUÑEAN

Bide eman euskarari, euskaraz bizi nahi dugu lelopean manifestazioa egingo dute ekainaren 4an Iruñean, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak deituta. Mobilizazioarekin aldarrikatu nahi da euskarari bide eman behar zaiola neurri ausartak hartuz. Era berean, adieraziko da euskarari bide eman behar zaiola justiziazkoa delako eta premiazkoa delako oreka soziala bermatzea. "Eta noski, euskaraz bizi nahi dugun herri-tarrok euskarari bide ematen diogula ere azalduko da manifestazioan".

HENDAIAN EGINGO DA AURTEN EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAI

Ekainaren 5ean, *Emazu eskua* leloarekin, Euskal Eskola Publikoaren jai egingo dute Hendaian, eskola publikoak hezkuntza-sistemaren ardazta izan behar duela aldarrikatzeko. 25. aldiz ospatzen den besta honen xede nagusia, Ipar eta Hego Euskal Herriko ikasle, guraso eta irakasleek elkarri eskua eta euskara ematea izango da. Hendaiko Beltzenia gunean, Txingudiko badiako pasealekua-
ren ertzean, ospatuko dute jai. Haur zein helduek gozatzeko ikuskizun eta jolas andana prestatu dute.

HIZPIDE IZANGO DA

HIK HASI-REN UDAKO TOPAKETETAKO HAINBAT IKASTAROTAN IZENA EMAN DAITEKE ORAINDIK



Hik Hasiren Udako Topaketetan izena emateko epea amaitu bada ere, hainbat ikastarotan bada tokia oraindik eta izena eman daiteke.

- LEIOAN:
 - Laguntza inklusiboa eskoletan
 - Eskola libre eta demokratikoak
 - Mindfulness eta TDAH
 - Psikomotrizitatea
 - Gorputzaren bidez arreta garatzeko teknikak
 - Nola saihestu eta kudeatu eguneroko gatazkak
 - Motibatu nahi?
- DONOSTIAN:
 - Adimen anitzak eta autoestimua
 - Konpetentzien ebaluazioa Bigarren Hezkuntzan
 - Mindfulness edo arreta osoarekin irakurtzen
 - Motibatu nahi?
 - Ipuinak kontatzen irudi-liburuak lagun
 - Entrenamendu Mentalaz eta Ametsak aztertuz, zorientsu
 - Espresio tailerra
 - Haur masajea

Ikastaro horiek betetzen diren arte, matrikulazioa egiteko aukera izango da, www.hikhasi.eus webgunearen bitartez. Edozein zalantza izanez gero, hikhasi@hikhasi.eus helbidera idatzi daiteke edota 943371408 telefono zenbakira deitu.

Ikastaroak ekainaren 28an, 29an eta 30ean izango dira Leioan (EHUren Irakasle Eskolan) eta uztailaren 4, 5 eta 6an Donostian (EHUren Pedagogia Fakultatean). 9:00etatik 14:00etara izango dira saio guztiak.

GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIEN FESTA OSPATUKO DA EKAINAREN 12AN IKAZTEGIETAN

1994. urtean ospatu zen lehen aldiz eskola txikien festa Ikaztegietan. 22 urte geroago, bertan elkartuko dira berriz, ekainaren 12an, Eskola Txikien Komunitatea osatzen duten herri eta auzokideak, festa giroan, eskola herrian edo auzoan izateak duen garrantzia aldarrikatzeko. Hala, urteroko legez, *Eskola txikiak bizirik, herri eta auzo txikiak bizirik* lelopean egingo da jaia.

Egunari 10:30ean emango zaio hasiera herriko plazan egingo den aurkezpen ekitaldiarekin. Ondoren, herria lau gune nagusitan banatuko dute eta gune bakoitzari kolore bat emango diote. Ikasleak taldekatuko dituzte, txandaka gune guztietatik igaro daitezten.

Bi gune herriko kiroldegian egongo dira, barruan eta kanpoan: zirkoa eta munduko jolasak. Beste biak, berriz, udaletxe inguruan: eskulanak eta osasuna-baserria.

13:30etik aurrera, aurrez eskatu dutenek, bazkaria izango dute plazan. Ogitartekoak jateko aukera ere izango da, Eskola Txikien Koordinakundeak ezarriko duen tabernan. Azkenik, etxetik janaria ekartzen dutenentzat ere mahaia izango dira.

Bazkalostean, 15:00etan, ipuin kontalaria ariko da eta ondoren jolas liberarako tarteak izango da eliz atarian. Amaitzeko, adin guztietako jendeari erantzun nahian, lehengo Gorriti eta bere animaliekin gozatzeko aukera izango da eta ondoren "apar festa" egingo da.



Azken boladan askoren ahotan ibili da Bernat Etxepare Lizeoa, Baxoa azterketan lortutako emaitzak medio Frantziako lizeo onenen artean izendatu dutelako. Emaitza horiek, ordea, ez dira urte bakarreko urrea, 25 urteko ibilbidean lorpenen erregularitasuna izan baitu ezaugarri Lizeoak. Ez hori bakarrik, izaera kolektiboaren lanketak, edo Ipar Euskal Herrian euskara hutsean bizitzeko aukera ematen duen espazioa izateak ere nabarmentzen du. Bidea ez da samurra, ordea: ikasketa-prozesu guztia euskaraz burutu ostean, ikasleek ez dute aukerarik Baxoa azterketa osorik euskaraz egiteko. Eta, unibertsitate-ikasketak euskaraz egin nahi izanez gero, Ipar eta Hego artean hainbat muga direla gogorarazten diete: estatuek ezarritako muga, eta hortik eratorritako hamaika muga administratibo.

GAIA: ETXE PARE LIZEOA

Argi-izpia iparraldeko hezkuntza-sisteman

Arrakastak sortu ohi duen lilurak hedabideen arretafokua erakarri du Baionako Bernat Etxepare Lizeora. Baxoa azterketan frantziar estatuko emaitza onenetarikoak lortu dituzte Lizeoko ikasleek, eta Terminala edo Batxilergoa irakasten duten zentro onenen rankingetan agertu da. Horri esker ezagutu dute hainbatek Lizeoa eta honen lana, baina 25 urte inguru daramatzate gazteen heziketan. Seaska Ipar Euskal Herriko ikastolasarearen baitan. Urte horietan guztietan, ikasleen lorpen onak eta urtez urteko emaitzen erregulartasuna izan dira Lizeoaren ezaugarrietako bi. Baina badira gehiago ere: 25 urteotan Lizeoa argi-izpi bat izan da Ipar Euskal Herriko hezkuntza-sarean, Bernat Etxepare baita Terminala euskara hutsean egiteko aukera ematen duen zentro bakarra.

236 ikasle ditu Lizeoak ikasturte honetan, eta 250 izango dira hurrengoan. Hori da joera, haztea, gero eta ikasle gehiago baititu urtez urte. Ikasle horiek nagusiki Bigarren Hezkuntza Seaskako kolegioetan egin ondoren iristen dira lizeora: 11-15 urte artean Ziburuko, Kanboko eta Larzabaleko ikastoletan ikasten dute. Eta, kolegio horietako ikasle kopurua ere handitzen ari denez, pentsatzekoa da Lizeoak ere hazten jarraituko duela datozen urteetan. Are gehiago emaitza onak sortu duten liluraren ondoren. Izan ere, orain arte Lizeora iritsi diren ikasle guztiek Seaskaren baitan, ikastoletan egin dute ikaskuntza-prozesu osoa, baina datorren ikasturterako badute Hegoaldeko, Donostiako ikasle baten eskaera, eta baita Iparraldeko sare elebidunean ikasi duten bi ikasleren eskaerak ere. Azken horiei beraien euskara-maila ziurtatzeko azterketa egingo diete; hala egiten



Hélène Charritton

dute Bigarren Hezkuntzako kolegioetara, Ziburu, Kanbo eta Larzabaleko zentroetara, lehen hezkuntza sare elebidunean eginda iristen direnekin ere.

Ikasleak Ipar Euskal Herri oso-tik iristen dira Lizeora, bertako zuzendari Hélène Charrittonen esanetan, “Hendaiatik Barkoxera: 70-80 herritatik heldu dira 236 ikasle horiek. Hori da Lizeoaren berezitasun bat, eta sekula ez da neurtu ahal zer

ekarpen egiten duten emaitza ona lortzeko, baina egiazko aberastasun bat da hori”. 70-80 herri horietako zenbaitetara ez dago Lizeoko ordutegiaren bateragarria den autobus-zerbitzurik; edo, besterik gabe, urrunegi daude egunero joan-etorria egiteko. Beraz, Barnetegi zerbitzua eskaintzen diete ikasleei: asteen 4 gau bertan gelditu daitezke, astelehene-tik ostiralera, bi hezitzailek lagunduta. Gutxi gorabehera ikasleen laurden bat gelditzen da Barnetegian, eta aukera ematen du Lizeoan egiten den lanari jarraipena emateko: “Giro berezia sortzen da bertan. Batetik euskara-mailan, osoki euskaraz bizitzeko esperientzia oso bakanetarikoa izaten delarik Ipar Euskal Herrian, esperientzia izugarri interesgarria atzematen dut. Eta, bestetik, haien elkarbizitza lotua, bada esperientzia bat zinez hezitzailea”. Hori horrela izanik, bada Baionatik hurbil bizi arren Barnetegian gelditzea aukeratzen duenik ere, “preseski esperientzia hori

GAIA: ETXEPARE LIZEOA

Argi-izpia Iparraldeko hezkuntza-sisteman

bizitzeko eta lagundua izateko bere ikas-prozesuan”. Izan ere, bertako hezitzaileak ikasketetan laguntzaile dituzte, eta, gainera, Lizeoak proiektu bat du garatua Barnetegiarri begira, “nerabeari heldu izateko bidean laguntzeko, autonomia mailan, eta talde-giroa lantzeko, gauza kolektiboak antolatuz.”

14-15 urterekin iristen dira ikasleak Lizeora, eta 3 ikasturte dituzte aurretik Baxoa azterketa prestatzeko. Eta, horren ondoren, unibertsitatera joateko aukera izango dute. Etxepare Lizeoan hiru Batxilergo orokorrak eskaini izan dituzte: Literaturakoa, Ele deitua; Ekonomikoa eta Soziala, ES deitua; eta Zientifikoa, Z deitua. Iaztik Teknologia Terminala gehitu dute euren eskaintzara, ahalik eta anitzena izan dadin. Aukeraturiko Terminala dena delakoa izanik ere, ikasgaika antolatuta dago irakaskuntza-prozesua, eta Frantziako Hezkuntza Ministerioak ezarritako programa betetzea dago: “Seaskak duela 20 urte pasa Frantziako Hezkuntza Ministerioarekin akordio bat egin zuen, irakasleak mi-

Guraso 'abentura-zaleak'

Euskal Herriko ikastolen sorreretan, Ipar nahiz Hego, ohikoa izan zen moduan, hastapenak ez ziren errazak izan Bernat Etxepare Lizeoan, eta gurasoek seme-alaben ikasketek benetan zilegitasunik izango zuten jakin gabe ekin zioten bideari. Horregatik dio Lizeoko zuzendari Hélène Charrittonek “abentura-zaleak” izan zirela, “arriskuak hartu zituzten. Gerora Seaskaren sarea izugarri hedatu da, eta, izan irakaskuntzan edo gizarteko beste esparruetan, askok sustengatzen dute Seaska”. Horren adibide, lehen ikasturte hartan blokeatuak izan zirenean, “ondoko ikastetxe publikoek hartu zituzten gure ikasleak azken unean eta haien bidez egin ahal izan zuten Baxoa azterketa. Iparraldean denak ez dira euskaldunak, euskaldun denak ez daude Seaskan, baina Seaskak behar duelarik zerbait, Iparraldeko jendea beti hor dago laguntzeko”, dio Charrittonek.

Lizeoko gurasoak elkarte batean antolatuak daude, administrazio-kontseilu batekin eta bulego batekin. Gurasoek, gainera, ekarpen ekonomikoa egiten diote Lizeoari, eta egun Etxepareko 13ren bat langile guraso-elkarteak ordaintzen ditu. Charritton bera ere bada Seaskako ikastola bateko guraso, eta, dioenez, “Seaskako guraso baten egunerokoa da ikastolaren alde lan egitea, bestak antolatzea, taloak saltzea... Lehen mailako guraso berri zirelarik, piztua zira horrekin. Motibagarria da, ikusten duzularik inplikazioa. Gainera, zure haurraren segimendua eta zure ekarpena egiten ahal dela, erakargarria da”.

nisterizatik ordainduak izateko. Bestela ez zen posible, hamar mila Herri Urrats egin beharko genituen proiektua sustengatzeko! Baina kontratu horrek suposatzen du Seaska engaiatzen dela programa betetzera”. Hala, terminal bakoitzean gutxi gorabehera 10 ikasgai dituzte, eta horietako bakoitzak bere programa dauka.

Dena dela, programa ofizialetik kanpo, eta honez gain, ikasleek ikasturte bakoitzean astean 4 ordu eskaintzen dizkiote euskara ikasgaiari. Hizkuntzek, izan ere, pisu handia dute Lizeoaren jardunean. Orotara, ikasleek hiruzpalau hizkuntza ikasten dituzte Terminala egin bitartean. “Euskara da lehena. Gero frantsesa, behartua, baina bigarren ikasturtean azterketa gaintu ondoren 3. ikasturtean jada ez dute lantzen. Bestetik ingelesa edo espainola, bietarik bat aukeratu behar dute ikasleek, baina gehien-gehienek biak aukeratzen dituzte”. Euskarari dagokionez, Lizeoa bukatzean ikasleen %75ak lortzen du EGA maila; Euskal Herriko ikastetxeen batez bestekotik gora daude horretan ere, eta aski kontent daude lorpenekin. Dena dela, arrazoi soziolinguistikoak tarteko, beldur dira tasa horrek behera egingo ote duen: “Orain arte Lizeora heldu diren familiak eta ikasleak euskaldunak dira %95ean, edo, bederen aita edo ama euskalduna da. Baina Lehen Hezkuntza hartzen baduzu, tasa arrunt alderantzizkoa da: %25 datoz familia euskaldunetatik, eta %75ean gurasoek ez dute euskara menderatzen. Beraz, orain daukagun tasa handiarekin, non familia euskaraz mintzatzen den, transmisioa badagoen, koherentea da emaitza ere izatea ona. Baina, tasa jausten bada, jausten bada gurasoen euskalduntasun hori, jausiko da emaitza ere”, azaltzen du Charrittonek.

Irakasle-taldea, arrakastarako giltzarri

Frantziatik ezarritako programari atxiki arren, baditu bere berezitasunak Lizeoko irakaskuntza-ereduak. Eta, hain zuzen, horretan datza Lizeoak emaitzetan izandako arrakastak. Berezitasun edo gakoetako bat irakasle-taldea da. “Gehiengotan irakasleak maite du bere lana, maite du ikasleaz arduratzea, baina Seaskako berezitasuna lantaldea da. Seaskako irakasleak behar du inplikatu lantaldean, izan dadin ikasleari erakusten den balioa. Kolektibitate kontzeptu hori oso barneratua da, lan egiteko filosofia bat da”. Eta irakaskuntza-metodoan ere badu eragina. Izan ere, irakasleen elkarlan horren fruitu, hainbat proiektu sortzen dira, zeinetan gurutzatu egiten diren ikasgaiak. Bestalde, irakaskuntza-eredu praktikoa aplikatzen dute irakasleek, bereziki zientzia gaietan: “Behar dute esperimintatu, horren arabera hipotesi bat egin, hortik zer kontzeptu ateratzen den aztertu, lege bat edo, eta gero ariketa bat egin...”.



Irakasle-talde hori, gainera, egonkorra da, eta, Charrittonen ustez, emaitzen kalitatea eta erregularitasuna hortik etorri dira, hein batean: "Badira 25 irakasle, eta erdia baino gehiago hastapenetik hemen da. Beraz, esperientzia badute, badakite zein diren eskakizunak bai irakaskuntza-mailan bai ikasleekiko, eta hori izugarri preziagarria da, dinamika bat mantentzen delarik."

Horiek, irakasle gisa duten formazioaz gain, Seaskaren baitan 3 urteko barne-formakuntza jasotzen dute. Euskara-maila bermatzeko lanketez gain, pedagogiarekin loturikoak jorratzen dituzte, ikaslearekiko harremana edo gelako kudeaketa kasu, eta baita Seaskaren proiektua ere. Hamabostean behin Seaskaren egoitzan jasotzen dute formazio hori, eta, horrez gain, ikastolen elkarteko aholkulari bat dute gelan, beraien lanean laguntzeko; bestalde, Lizeoko bertako irakasle batek egiten ditu hasiberriaren tutore lanak. Formazioaren amaieran irakasle-gaiek lan bat osatu behar dute problematika batetik abiatuta, eta ahoz aurkeztu behar dute ondoren hori.

Izan 25 urteotan pilaturiko esperientziaren fruitu, edo Seaskak eskainiriko trebakuntzaren ondorio, kontua da irakasle-talde horrek ikasleekin hurbileko harremana sortzen asmatu duela. "Eta horrek ere emaitzetan izango du eragina, baina hori ez da neurtzen ahal". Eta, Lizeoaren arrakastarako gako *informaletan* sakonduz, Charrittonek gogoan du Lizeoko aurreko zuzendariak esan ohi zuena, alegia, ikasleak *ogi xuria* direla. "Goxoak dira, sanoak, zintzoak... zinez. Beti galdezka 'ongi zira?', edo erraiten dizute 'egun on' bat... Ni ibili izan bainaiz bestelako eskoletan, ikasleen profiletan

denetarik da. Hemen dena *ogi xuria*", irribarre zabalez Charrittonek. "Azkenean talde ttipia da; ez dugu erraiten alferrik familia dela, herri ttipi bat bezala osatzen dela. Eta horrek bere ondorioak ditu emaitzetan ere, ene irudiko".

Rankinga baino garrantzitsuago, erregularitasuna

Bi irizpideren arabera neurtzen da ikastetxe batek Baxoan izandako arrakasta: batetik, Baxoa amaierako azterketan ikasleek izandako emaitza; eta, bestetik, Terminala hasi zuten ikasleen zenbatekoa iritsi den Baxoa azterketara. Etxepareren kasuan, azterketan lortutako emaitza urtez urte ona izan da "%95 eta %100 artean, gainerako akademiekin konparatuz, beti gorago ibili izan gara. Aski erregularra da hori". Eta hain zuen, hori da Charrittonentzat garrantzitsua.

Bigarren irizpidea betetzeko zailtasunak dituzte, ordea: iaz lortu zuten terminala hasitako ikasle guztiak azterketaraino eramatea, baina datu hori urtez urte aldakorra da. Izan ere, kontuan izan behar da Baxoa amaitzean unibertsitate-ikasketak euskaraz egin nahi badituzte, ez dutela Hegoaldeko unibertsitateetara joan beste aukerarik, momentuz ez Iparraldean bertan ez inguruko unibertsitateetan ez delako halako eskaintzarik. Baina, Hegoaldeko unibertsitateetara sartzeko zailtasunak asko eta askotarikoak dira. Horregatik, zenbaitek Batxilergo ikasketak Hegoaldean egitea erabakitzen dute, bertako unibertsitateetara sarbidea errazteko. Egoera hori konpontze aldera, Hegoaldeko erakundeen eta unibertsitateen laguntza ezinbestekoa dela uste du Charrittonek.

Lizeoko atetik ateratzean, zer?

Aspaldiko aldarrikapena dute: Baxoa azterketa oso-
osorik euskaraz egin nahi dute. 3 urtetik 18 urtera
arteko ikasketa-prozesu osoa euskara hutsean egin
ondoren, eskakizun logikoa dirudi. Frantziako
Hezkuntza Ministerioak ere onartzen du frantziar estatuko
hiritarrek eskubidea dutela Baxoa tokiko hizkuntzan egi-
teko. Euskararen Erakunde Publikoak ere 2008an onartu
zuen progresiboki Baxoa euskaraz egiteko aukera eman
behar zela Ipar Euskal Herrian. Baina, praktikan bidea ez
da hain samurra.

Gaur egun historia eta geografia azterketak egin daitezke
euskaraz Ipar Euskal Herrian. Hori bai, azterketako gal-
derak frantsesez idatzita daude. Lizeoko ikasleen kasuan,
matematika azterketa ere euskaraz egin dezakete, 2012an
Seaskari emandako derogazio berezi baten bidez. "Eta nola
lortu genuen hori? Bada haserretu ginelako eta 'edo heldu
den ekainean ikasgai bat gehiago egiten da euskaraz, edo
hemen ez du inork azterketarik egingo' esan genuelako",
dio Hur Gorostiagak, Seaska Ipar Euskal Herriko Ikasto-
len Elkarteko zuzendariak. Izan ere, azterketa-zentroak
blokeatzeko mehatxua egin zuten.

2012ko aurrerapauso hori eta gero, ordea, etena etorri da.
Lau urte joan dira, EEPk onartu eta frantziar legeak babestu
bezala, ikasturtez ikasturte ikasgai gehiago euskaraz egi-
teko aukera iristeko esperoan. "Orain gelditzen zaiguna da
2017a... eta gure gogoeta da ea berriro ere haserretu behar
ote dugun. Haurkeriak dirudite, baina beti puntu horretara
iristen gara. Eta zinez ez genuke halakorik nahi: ez dugu
konfrontaziorik nahi, bake- eta elkarrizketa-bideak jorratu
nahi ditugu. Beraz, Frantziako Hezkuntza Sailari eskatzen
diogu irekitzeko bere baitatik, eskaintzeko besterik".

Gainera, lege ez ezik, teknikoki ere gai gehiago eus-
karaz egitea posible dela dio Gorostiagak. Matematika
azterketa euskaraz egiteko baimena lortzeko, esaterako,
aurrez frogatu behar izan zuten bazirela nahikoa irakasle
gai zirenak matematikako azterketa euskaraz zuzentzeko,
eta, era berean, ez zirenak ikastoletako langile, hezkuntza
nazionala deiturikoan ari zirenak baizik. Orain ziurtatu
dute biologia edo fisika, kasu, euskaraz zuzentzeko gaitu-
tako irakasle nahikoa badela. "Baina borondatea da falta
dena", Gorostiagaren irudiko. "Euskaraz egiteko aukera ez

emateko Frantziako Gobernuaren arrazoi nagusia da Baxoa
azterketa *nazionala* dela, eta, beraz, Frantziako punta
batekoek nahiz bestekoek azterketa bera egin behar dutela,
hitzez hitz, eta, orduan, azterketa euskaraz egiten bada, ez
genituzkeela baldintza berak beteko. Guk erraiten dugu-
na da galdera berdina dela, aldatzen den gauza bakarra
hizkuntza dela! Azken batean aitzakia hutsa da".

Etxepare Lizeoko eta Seaskako kideek, lege aitortu zaie-
na eta teknikoki posible dena praktikara eraman nahi dute
orain: azterketa osoki euskaraz egin nahi dute.

Unibertsitate ikasketak euskaraz egitea, odisea bat

Dena dela, Baxoa euskaraz egitea lorturik ere, hortik au-
rrerako ikasketekin euskaraz jarraitzeko zailtasunak dituzte
Etxepare Lizeoko ikasleek. Iparraldean ez dute horretarako
aukerarik, posibilitate bakarra da Hego Euskal Herriko
unibertsitateetan egitea ikasketak, baina bide korapilatsua
da hori.

Etxepare Lizeoko irakasle-taldeak laguntza eskaintzen
die euren ikasleei Hegoaldean unibertsitaterako sarbidea
ematen duen selektibitate azterketa prestatzeko, baina,
hasieran interesa adierazi arren, gutxi dira nahi hori buru-
raino eramaten dutenak. Izan ere, ikasgai batzuetan aski
desberdinak dira Iparraldeko eta Hegoaldeko programak,
eta ahalegin handia eskatzen du ikasgai horien selektibi-



tateko eskakizunak prestatzeak. Gainera, selektibitatea egitea erabakiz gero ere, ordu arte Lizeoan lortutako notak konbalidatu egin behar ditu Espainiako Hezkuntza Ministerioak, eta ibilbide "izugarri konplikatu da hori", Lizeoko zuzendari Hélène Charrittonen esanetan: "Notak Madrileko UNEDen egoitzara bidali behar ditugu, honek Frantziako enbaxadoreari igortzen dizkio, Frantziako Hezkuntza Ministeriora bidal ditzan, eta erakunde horrek noten konbalidazioa egiten du. Zirkuitu hori guzia egin behar bada, lehen deialdian matrikula egiteko epeetan ez dira sartzen aintzetan. Guk batailatzen dugu unibertsitateetako errektoreekin, lekua gordetzeko, baina batzuetan lortzen da eta besteetan ez, afera administratiboa da".

Hori gutxi balitz, konbalidazio horretan galtzen atera ohi dira Lizeoko ikasleak, Frantziako Hezkuntza Sistemari


20ren gainean puntuatzen denez, eta ez 10en gainean: "Demagun, hemen 14 izatea ona da, goi mailako nota da, eta Hegoaldean 7 erdibidekoa da".


Gauzak horrela, bidea errazteko, unibertsitate-ikasketak euskaraz egin nahi dituzten zenbaitek Batxilergo ikasketak Hegoaldeko ikastetxeren batean egiteko erabakia hartzen dute; modu horretan ez dute noten konbalidazioa egiteko odisea egin beharrik, eta selektibitate azterketan eskatzen zaiena bat etorriko da ordu arte eskolan landutako programarekin; epeen arazoa ere ezerezean gelditzen da. Dena dela, bai Charrittonek bai Gorostiagak nahi lukete Hegoaldeko unibertsitateek eta erakundeek bidea erraztea, unibertsitate ikasketak euskaraz egiteari uko egin gabe, Iparraldeko ikasleek beraien ikasketa-prozesua Lizeoan bertan bukatzeko aukera izan dezaten.



HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA
FACULTAD DE
HUMANIDADES Y
CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

HEZKUNTZA MASTERRAK

Berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan unibertsitate masterra (BERRIMET) 

Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunetan unibertsitate masterra (EKOMU) 

Derrigorrezko bigarren hezkuntzan, batxilergoan, lanbide heziketan eta hizkuntzen irakaskuntzan irakaste gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra

INFORMAZIO SAIOA

ESKORIATZA

EKAINAK 16, osteguna, 18.00etan

www.mondragon.edu/unibertsitatemasterrak



"Lorpenaren ondorioa da jada nehork ezin duela zalantzan ematen ahal euskararen balioa"

Lizeoa Frantzia mailan hainbat aldizkaritan agertu da lehena bezala, baina hori lizeokoek hastapenean ez zuten baloratzen. Ez delako helburu bat Baxoa guztiek gainditzea, baizik eta beste modu batera esanda, ikasle bakoitzak eduki dezan Baxoa", dio Ur Gorostiagak, Seaska Ipar Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen zuzendariak. Alegia, Lizeoaren xedea ez da rankingetan ospea emango dion zenbaki hori lortzea, baizik eta ikasle bakoitzari bere ibilbidean osatzen laguntzea.

Zein da Lizeoa izaten ari den arrakastaren gakoa? Zein dira Seaskako ikastolen ezaugarriak?

Guretzat arrakastaren gakoa da, batetik, Lizeoko profesionalen inplikazioa, baina baita ere *Lizeotarrek*, ikasleek, daramaten historia atzetik; haien baitan daramaten nahi gabeko pedagogia. Izan ere, ikastolan sartzen diren momentutik ikusi dute gurasoek ikastola garbitzen dutela, gurasoak mobilizatzen direla haien ikastolarendako, manifestaldieta-
ra joaten direla, okupazioak egin dituztela... parte-hartzea eta inplikazioa dagoela, alegia. Azken finean, ikastolako ikasleek ikusi dute gurasoentzako zer inportantea den irakaskuntza. Barneratu duten gauza bat da, eta beraiek ere eskolari inportantzia hori ematen diote, inplikatu egiten dira. Gainera, pentsa dezagun Baxoan emaitza txarra izango bagenu: asko lirakeke errango luketeenak euskarak ez duela balio kimika irakasteko, ez du balio biologia irakasteko, eta orduan gainkarga edo ardura hori sentitzen dute bai familiek, bai irakasleek bai ikasleek. Eta horrek bultzatzen ditu lan hori egitera eta erakutsi behar izatera.

Istorio honetatik ateratzen dugun irakasgai handiena da jada nehork ez duela dudan ematen ahal euskararen balioa, ez dela frantsesa baino gehiago edo guttiago, eta badela garaia Baxoa euskaraz egiteko ahala ukan dezaten. Orain helburua da azterketa euskaraz egin dezaten, zeren aitzakiek ez dute balio.

Arorik akademikoena da Baxoa, azterketak gainditzera bideraturikoa nolabait, eta programa bat jarraitzera be-

hartuak daude. Zer leku du curriculum propioak Lizeoaren martxan?

Hori da azken urtean lantzen ari garen gaia, baina gaur egun programak Frantziako Gobernuak finkatzen ditu, eta gobernuak dio *Marsellesa* ikasi behar dela, eta historia eta geologia liburuetan ematen dituzten adibideetan flyschak Frantziako iparraldeko itsasbazterretan agertzen dira. Orduan, gure irakasleek badute lan bikoitza: programa ofiziala bete, eta ondoan azaldu flyschak baditugula Zumaian; edo Frantziar Errepublika eta Pirinio Atlantikoak modu honetara antolatuta daudela, baina Euskal Herriak badi-tuela 7 probintzia. Beraz, tokiko kultura eta tokiko edukia gehitzen zaio Frantziatik gidatutako programari. Posible da hori egitea eta ez gaude ilegaltasun bat egiten, baina ez dago definitua, eta eduki hori dena irakasleek osatu eta zehaztu dute, beraien artean urteetan egindako lanari esker; azkenean lan gehigarri bat da irakasleentzat, fitxak eta abarrak prestatu behar baitituzte.

Beraz, frantses programa segitu bai, baina ondoan egiten dira bestelakoak, gure aportazio gisa. Lehen Hezkuntzan ere bertsolaritza sartzen dugu, eta hori arrunt programatik kanpo dago, Frantzian ez baitakite zer den. Euskal jolasak ere egiten dituzte, Xiba delakoak. Bertsolarien Lagune-kin eta Bertsozaleen Elkartearekin badugu elkarlana, eta, beraz, 3 bertsolari etortzen dira ikastoletara. Eta Xibarako ere Ikastolen Elkartearekin dugu elkarlana, esku-hartzaile batzuk hor izateko irakasleen ondoan.

Seaskaren aldetik babes handia dute irakasleek, 3 urteko formazioa jasotzen dute...

Irakasleek teoriarik behin titulua lortuta irakas dezakete, baina guk eskatzen diegu barne-formakuntza egiteko. Trebakuntza horretan, besteak beste, Seaskaren ezaugarriak nahiz ikastolen ezaugarriak zer diren, euskal curriculumari dagozkion elementuak... azaltzen dizkiegu; izpiritua eta xedea zein den barneratzen dute. Inplikazio bat eskatzen du.



Baxoa euskaraz lortze aldera, hezkuntza elebiduneko eragileen aldetik badago elkartasunik?

Gure aspaldiko galdera hori da. Badugu egitura bat deitzen dena Hiru Sareta, hiru sareak lotzen ditu: Seaska; Biga bai, eskola publiko elebiduneko gurasoak; eta Euskal Haziak, konfesional pribatu elebiduneko gurasoak. Horiek nahiko lukete minimoki Baxoa azterketa euskaraz egiten dutenean diplomana ager dadin adierazpen bat esaten duena *Hau Baxoa elebiduna izan da*; zerbait adierazten duena haur horien gaitasuna euskaraz ere egin dutelako. Guk bat egiten dugu horien eskaerarekin.

Eta unibertsitate mailako ikasketak euskaraz, hori noizko? Utopia bat da oraingoz? Era berean Lizeoko ikasleek zailtasun handiak dituzte Hegoaldean ere unibertsitate ikasketak euskaraz egiteko...

Hala da, gaur egun Sevillako ikasle batek aukera handiagoa du Donostian ikasteko Hendaiaiko ikasle batek baino, Hendaia eta Donostia artean ordu erdi eskaseko bidea dagoenean. Laguntzen gaituzte hainbat fakultatek, baina ez da batere sinplea, beraiek espainiar legea gainean dute horretan. Hala ere, uste dugu zirrikituak topatu behar ditugula egoera normalizatzeko eta errazteko, ez dadin hain konplikatu izan Seaskako ikasleentzat unibertsitate-ikasketak euskaraz egitea.

Eta unibertsitate-ikasketak hemen euskaraz egiteari buruz... Bordelen dago unibertsitate nagusia, eta Bordelentzako Ipar Euskal Herritarrok *indio* batzuk gara. Dena dela, gure irakasleen formaziorako gauza batzuk ari gara lotzen, baina kostatu da. Une honetan beste helburu batzuk ditugu.

Zein dira aurrera begirako asmo horiek?

Ikusten ari gara kolegiotik lizeorako urrats horretan ikasle anitz galtzen dugula arlo profesionalera joaten delako. Orain gure helburua da lizeo profesionala martxan jartzea, hau da, Lanbide Heziketa, ikasle horiek segitu dezaten bururaino euskaraz. Eta aski lan dugu horrekin!

Bestalde, lizeo ondoko etapari begira, egon daiteke aukera Batxilergoa eta bi urtera ematen diren titulu profesionaletara zabaltzeko eskaintza. Era berean, badugu beste eskaera bat ere: Lehen Hezkuntzatik erraiten digute gaur egun euskaraz ikas daitekeela 2 urtetatik 18 urtetara, baina 0 eta 2 artean haur eskola euskaldunak eskas direla, eta, beraz, Seaskak ez ote lukeen horretan lagunduko. Eta, momentu berean, eskolaz kanpo aisialdia garatzeko jada badago udaleku egitura bat, eta galdegiten digute zergatik ez genukeen garatuko. Horretaz aparte, badugu zailtasunetan diren haurrentzako egitura bereziak sortu beharra. Alegia, dena egiteko dago, eta fronte guztiak batera zabaltzea zaila da.



“Emozioak dira giza harremanen motorra eta gure bizitzako elementurik garrantzitsuena. Beraz, hezkuntzan ere hala izan behar lukete”

ELKARRIZKETA:

SILVIA

PALOU

HEZIKETA EMOZIONALEAN ADITUA

Haur Hezkuntzako irakaslea eta psikologoa izateaz gain, heziketa psikosozialean eta emozionalean aditua da Palou. Uneotan, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan irakastelanean aritzeaz aparte, hezitzaileen etengabeko formakuntzan jarduten du, eta familien orientaziorako laguntzaile da. Haurren garapen emozionalari eta horrek familian nahiz eskolan duen

eraginari buruzko hainbat artikulua eta liburu argitaratu ditu. Eta gai horren inguruko ikastaroa eman du Donostian, Hik Hasik 0-3 urte arteko hezitzaileentzat eskaintzen duen formazioan. Bere esanetan, emozioak zentroan jarrita jardun behar luke eskolak. Izan ere, "emoziorik ezean motibaziorik ez dagoen gisan, afekturik gabe ere ez dago ikaskuntzarik".

Jaiotzen denetik ditu haurrak emozioak. Bizitzan aurrera egin ahala nola joaten da garatzen umearen alderdi emozional hori?

Emozioa pertsonaren barruko sentimendua da, zerbait biologikoa eta pertsona batek nahi edo ez, izango duena. Pixkanaka eraikitzen du haurrak bere mundu emozionala. Berezi-ki, gertuko ingurunean —familian, eskolan nahiz lagunartean— izaten dituen bizipenen bidez.

Baina, hasteko eta behin, gauza bat argi utzi nahi nuke, emozioak guk nahi edo ez hor izango ditugunez, ez genuke gure burua —edota ingurukoak— epaitu behar era bateko emozioak edota beste era batekoak sentitzeagatik. Adibidez, bizipen baten aurrean amorrua sentitzea ez da ez ona eta ez txarra. Sentitzen dugun emozio bat da, eta kito. Baina bizi dugun kulturaren, ditugun usteen, gure familia-ingurunearen, edota gure nortasunaren arabera, emozio horren era bateko edo besteko balorazioa egingo dugu. Amorruren kasuan, ia beti, negatiboa. Eta ondorioz, beste sentipen batzuei irekiko diegu bidea, hala nola, kulpari edota

gaitzespenari.

Hortaz, une jakin batean amorrua sentitzen badugu, edota haur bat amorrus dagoela ikusten badugu, sentipen hori onartu behar dugu eta lekua egin behar diogu emozio horren bizipenari. Hori bai, amorru hori kanporatzen dugunean, etikoki jokatu behar dugu, alegia, besteen sentimenduak kontuan hartuz, eta ondokoak nahiz geure burua errespetatuz.

Beraz, testuinguruak sekulako eragina du haurrak emozioak bizitzeko nahiz interpretatzeko duen moduan.

Bai, hala da. Gure bizipen emozionala indibiduala edo kolektiboa izan daiteke, baina beti izango da partekatua, hau da, bizipen hori ezin da testuingurutik bereizi. Izan ere, ingurunea da geure emozioak interpretatzeko erreferenteak ematen dizkiguna.

Testuinguruaz ari garenean, berebiziko garrantzia du familiak. Haurra bere sentimenduen mundua eraikiz joango da erreferentziatzat bere familia-ingurunea hartuta. Haurra hazten doan heinean, eskolak, lagun-taldeak, auzoak... ere inportantzia handia

hartuko dute. Beldurra, poza, tristura, amorrua, afektua, kulpa, eskuzabal-tasuna, enpatia... bizitzen ikasiko du haurrak determinismo genetikoaren arabera, baina baita genetikoak ez direnen arabera ere.

Esate baterako, haur baten barne-mundua ulertu nahi badugu, haur horrek bere familiarekin eta hurbileko talde sozialarekin izan dituen harremanak ere ulertu behar ditugu, baita bere jatorrizko kulturaren arabera garatu dituen estrategia emozionalak ere.

Inguruneak halako eragina duen arlo batean, zer-nolako garrantzia hartzen du heziketak?

Emozioak dira giza harremanen motorra eta gure bizitzako elementurik garrantzitsuenak. Beraz, hezkuntzan ere hala izan behar lukete. Zentzu horretan, heziketa egoki batek haurren garapen emozionala sustatzea esan nahiko luke, hau da, pertsona gisa garapen integrala izan dezaten lagundu behar zaie.

Heziketaren ikuspegitik, eta bereziki, haurraren lehen urteetan pentsatuz, bi zutabe garrantzitsu



izan behar ditugu kontuan. Batetik, **barne-gogoa**. Familiatik nahiz eskolatik haurraren gogoaz zer ulertzen dugun berdefinitu behar dugu. Gogoa diogunean ekiteko, sortzeko, ikasteko grinaz ari gara. Baina bizitzan aurrera egiteko urratsak emateko nahi horrek barrutik erretakoa izan behar du, sortzeak edota ikasteak ematen duen plazerak eragina. Sarri, ordea, familiatik, eskolatik nahiz oro har gizartetik haurrak ohitzen ditugu gauzak egitera trukean saria jaso dezaten. Ondorioz, norberak sinesten duen horrengatik lan egiteko grinarri eta hori lortzeko bakoitzak egin beharreko esfortzuari ez diegu behar besteko baliorik ematen.

Heziketa emozionalaren zutabe bat haurraren barne-gogoa da hortaz. Eta zein da bestea?

Beste zutabea **esfortzua** da, haurraren autonomia sustatzeko balio gisa ulertuta. Umeak desio duen hura lortzeko egin beharreko esfortzuaren aurrean bere bidea egiten uztea esan nahi du horrek, soluzioak kanpotik eman gabe eta bide horrek ekar diezaiokeen *sufrimendua* bizitzen utziz. Helburua da haurrak bere larruan esperimintatzea desio bat lortzeak eman diezaiokeen plazera, poza eta zoriontasuna. Edota desio hori ez lortzeak ekar diezaiokeen frustrazioa. Azken batean, norbere ekintzen ardur hartzea esan nahiko du horrek.

Heziketa emozionala egokia izan dadin zer eduki behar da kontuan?

Lau aspektu azpimarratuko nituzke. Lehenik **ingurune soziala**. Haurrak jaiotzen denetik esperimintatzen dituen lotura afektiboak ingurunearen araberakoak izan ohi dira. Umea bizi den espazio horrek antsietatea eragin dezake, edota poza, tristura, galeren onarpena, etsipena... Era askotako lotura afektibo horien gainean garrantuko du haurrak bere adimen emozionala. Adibidez, haur batek lagun berrietara gerturatzeke duen modua haur horrek bere gurasoekin izan duen harremanaren isla izan ohi da. Ume horrek izan familian, eskolan nahiz komunitatean talde batera egokitu beharko du eta horretarako garrantzitsua da oinarri emozional

sendoa izatea, gero izate indibidualaren eta talde izaeraren arteko oreka bila dezan, hor baitago giza ongizatearen gakoa. Izan ere, komunitateak segurtasuna ematen du, baina aldi berean, askatasuna kentzen.

Haurraren heziketa emozionalerako beste ezaugarri garrantzitsu bat **barne-elkarrizketak** izateko gaitasuna da, horrela joango baita bere burua ezagutzen, onartzen eta identitate propioa eraikitzen. Ingurunearekin dituen harremanen arabera eta harreman horietatik ateratzen dituen ondorioen laguntzaz, haurrak bere barne munduaz kontzientzia hartzen du. Hala, sentitzen dituen emozioei hitzak, keinuak edota jestuak jartzen dizkie eta bere sentipenak besteekin partekatzen ditu.

Gertutasunaren eta distantziaren arteko kudeaketa da heziketa emozionalan kontuan izan beharreko beste aspektu bat. Izan ere, heziketa emozionalaren helburuetako bat da haurra emozionalki autonomoa izatea, alegia, besteenganako sumisio sentimentalik gabe harremanak izateko eta bizitzeko gai izatea. Haurraren haziera autonomorako inguruneak jarriera egokia hartzea oso garrantzitsua da, bereziki familiak. Haurrari utzi egin behar dio maitatua eta zaindua izan den eremu afektibo horretatik distantzia hartzen. Beste pertsona baten laguntzarik gabe esperimintatzen dituen lorpenei esker bere gaitasuntan konfiantza hartuko baitu.

Sentsibilitate estetikoa da laugarren eta azken alderdia. Kulturaz ari gara kasu honetan, eta hain zuzen ere, kultura da haurraren testuingururik zabalena. Sinesteak, egoera desberdinen aurrean jokatzeko moduak eta errealitateko gertaeren esanahia ulertzeko erak ematen dizkigu kulturak. Bertan islatzen du haurrak bere burua eta aldi berean kultura horrek erakartzen, liluratzen, bereganatzen du umea. Gauzek bere horretan ez dute baliorik, pertsonak gauza horiekiko dituzten harremanek ematen diote balioa. Imajinazioak, sormenak, eta jolasak esanahia ematen diete gauzei, komunikatzeko balio dute eta norbere burua kulturari islatuta ikusteko. Horrengatik da garrantzitsua sentsibilitate estetiko.

"Ez genuke gure burua —edota ingurukoak—epaitu behar era bateko emozioak edota beste era batekoak sentitzeagatik. Adibidez, bizipen baten aurrean amorrua sentitzea ez da ez ona eta ez txarra. Sentitzen dugun emozio bat da, eta kito"

"Umeak desio duen hura lortzeko egin beharreko esfortzuaren aurrean bere bidea egiten utzi behar diogu, soluzioak kanpotik eman gabe eta bide horrek ekar diezaiokeen 'sufrimendua' bizitzen utziz"



Haurren garapen emozionalean familia, eskola eta komunitatea sartzen dira elkarreraginean. Zein da bakoitzaren papera?

Aurrez aipatu bezala, familia da guztietan garrantzitsuena. Familian garatzen diren harremanak izango baitira haurren mundu emozionalerako sostengu. Haurrentzat familia mundura irekita dagoen leiho bat bezalakoa da eta familiaren altzoan eraikitzen du bere nortasuna. Gainera, familian ikasten ditu haurrak bizitzarako balio nagusiak eta besteekin erlazionatzeko erak. Azken batean, argi dago txikitatik lotura emozional sendoekin hazteak eskolan hobeto jardutea esan nahi duela, emoziorik ezean motibaziorik ez dagoen gisan, afekturik gabe ere

ez baitago ikaskuntzarik.

Familiako kide guztiak emozionalki orekatuta senti daitezen, guraso gisa, kontuan izan beharreko hainbat ezaugarri azpimarratu nahi nituzke: haurrekin lotura afektiboak eraikitzea eta etxean talde kohesio osasuntsua saretzea; enpatia edo bestearen beharrak antzemateko eta haiekin sintonizatzeko gai izatea; malgua izatea eta egoera berrietara egokitzen jakitea; komunikatzeko eta elkarrizketarako gaitasuna edukitzea, hala norbere beharrak adierazteko eta besteenak errespetatzeko.

Haurren mundu emozionala eraikitzerako orduan zein toki hartzen du eskolak?

Eskolaren atzean dagoen filosofiak

haurtzaroan sinetsi behar du. Haurra ekarpenak egiteko gai den pertsona gisa ikusi behar du, bere hazkuntza-prozesuan aktiboki parte hartzeko gai den pertsona gisa. Umeek berez gaitasunak dituztela onartu behar du eskolak eta espektatiba altuak dituen hezkuntza-markoa eskaini behar dio. Ulertu behar du ez dela beharrezkoa dena kanpotik erakustea, baizik eta pentsatzeko, imajinatzeko, ikertzeko, erratzeko, eta akatsetatik birsortzeko gauza direla haurrak. Horretarako proposamen aberatsak egingo dizkien ingurune bat behar dute.

Era berean, eskolak familien ondoan egon behar du haurren heziketan. Esan erraz egiten da, baina askotan zaila izaten da familien konfiantza lortzea. Garrantzitsua da familiei eskolako parte direla sentiaraztea. Horretarako eskoletan gurasoekin elkartzeko topaguneak eduki behar dira, benetan parte hartzeko aukera emango dieten espazioak behar dituzte. Ezin ditugu ate ondoan utzi, baizik eta barrura sartzea gonbidatu eta bat gehiago izaten utzi behar diegu. Ematearen eta jasotzearen arteko oreka lortu behar dugu familiarekin. Izan ere, ematen duena oso ondo sentitzen da, baina jasotzen duenak ezer ematen ez badu, zorretan sentitzen da eman dionarekin eta horrek bi aldean arteko urruntzea ekarri ohi du.

Horrekin batera, hezitzaileoi gurasoen rola errespetatzea dagokigu eta haien gainetik ez jartzea. Ezin dugu pentsatu familiak baino hobekak garenik. Harreman parekidea eraiki behar dugu familiarekin, eta horretarako garrantzitsua da familia eta haur guztiak dituzten alderdi positiboetan oinarritzea harremana.

Gero haur hori komunitate bateko kide izango da. Eta horrek ere eragingo du bere garapen emozionalean.

Gure haurrak zer-nolako gizartetan bizi diren oso kontuan izan behar dugu hezitzaile garen neurrian. Azkarregi doan ingurune bat daukate, gainestimulatua, oso leihakorra, uneoro aldatzen ari dena, eta komunitarismoaren aurrean indibidualismoa sustatzen duena.

Azkartasuna da gaurko gizartearen

ezaugarri bat.

Bai, eta normalean gurasook eta hezitzaileok daukagu haurren denboraren gaineko botere osoa. Gure esku dago umeez euren denbora nola erabiltzen duten erabakitzea: zer egingo duten denbora ahalik eta hobekien *aprobetxatzeko*. Hizkera modernoa erabiliz, euren haurtzaroko orduei ahalik eta *etekin* handiena atera nahi diegu, etorkizunean leihakorrak izan daitezten. Eta hori falazia hutsa da, gure kontsumo gizartearen tranparik handienetariko bat. Dena kontsumitzen dugu, baita gure umeen haurtzarora ere.

Haurrek gaur egun dituzten bizipen gehienak azkarrak eta intentsitate handikoak dira, eta gainera bata bestearen atzetik egiten dituzte, ezelango isiltasun-unerik tartekatu gabe. Hau da, umeez egiten dituzten jarduerak sarri aldatzen dira, gutxi irauten dute eta oso intentsoak dira. Jarduteko modu horrek ez die aukerarik ematen ez mentalki ez fisikoki ez afektiboki prestatzeko. Era berean, haurrek ez dute abagunerik egindakoa errepikatzeko, sakontzeko edota erratzeko. Ez zaizkie errespetatzen bakoitzak behar dituen denborak, ezta bakoitzak egiten duten bidea ere. Jartzen diegun erritmo intentsoak ez die eskaintzen jarduerarik gabeko unerik, non esperoan egongo diren, isiltasunean, lasai...

Gehiegi estimulatutako ingurunea ere aipatu duzu.

Loriz Malaguzzik zioen moduan haurrek denbora behar dute euren nortasuna finkatzeko, euren "ni"aren kontzientzia garatzeko eta euren buruarengan konfiantza hartzeko, independenteak izatera irits daitezten. Zer gertatzen da? Egunez egunera prozesu hori egiteko denbora gutxiago uzten diegula.

Haurrek gauza asko jakitea nahi dugu: ingelesa, informatika, musika... Hori lehenesten dugu, eta ez zaie denborarik geratzen nor diren eta nolakoak diren hausnartzeko, alegia, ez diegu aukerarik ematen bakarrik jateko, bakarrik jantzeko, gauza desberdinak esperimentatzeko, akatsak egiteko, norbere mugak proban jartzeko... Ahal dugun gutzia

egina ematen diegu denbora "alferrik gal ez dezaten" eta ahalik eta hobekien "aprobetxa" dezaten.

Egunez egunera haur gehiago dago lau urterekin eguzki-sistemak nola funtzionatzen duen esplikatzeko gai dena, baina biberoko esnearekin gosaltzen duena inolako esfortzurik egin beharrik izan ez dezan eta denborarik gal ez dezan. Haurrek alderdi batzuk oso garatuta dituztela ikusten dugu, baina beste arlo batzuetan sekulako gabeziak dituztela. Amildegizugarri horrek nahigabea eta nahasmena eragiten die. Gauza batzuetarako *superman* bezalakoak sentitzen dira, eta beste gauza batzuetarako — eurentzat oinarrituak eta garrantzitsuak direnak — oso dependienteak.

Horren guztiaren aurrean, zer eskaini beharko lioke familiak, eskolak nahiz komunitateak haurrari?

Hiru ezaugarri aipatuko ditut. Bate-tik, **pentsemendu irekia**. Horretarako haurraren kuriositatea elikatu behar dugu, informazioa aurkitzeko, ordenatzeko, kritikoki aztertzeko eta horretan oinarrituz beste eduki bat sortzeko gai izan dadin. Hala, ez dakienaren, ez denaren edota ez daukanaren esklabu izan beharrean, dakiena, daukana eta dena baloratzen ikasiko du.

Era berean, haurrari **ziurgabetasunean eroso senti dadin lagundu** behar diogu, bizitzaren konplexutasunari balentriaz egin diezaion aurre. Horretarako garrantzitsua da haurra arlo pertsonalean sendo sentitzea, ingurunea ahultzen den bakoitzean bera ere abailduta senti ez dadin. Beraz, umeari lagundu behar diogu bere barne munduaren kontzientzia eta bere buruaren ezagutza garatzen, irmotasunez.

Horrekin batera, **izaki sozial direla ikasi** behar dute haurrek. Konturatu behar dute ezin dutela *bestea* gabe izan eta, beraz, euren betebeharrak sozialak asumitu behar dituztela. Eta nola ez, pentsatzeko momentuak utzi behar dizkiegu, hausnartzeko, kontentatzeko edota besterik gabe ezer egin gabe egoteko uneak. Hala, zer nahi duten, non dauden eta nora joan nahi duten identifikatzen ikasteko aukera izango dute.

"Hezitzaileoi gurasoen rola errespetatzea dagokigu eta haien gainetik ez jartzea. Ezin dugu pentsatu familiak baino hobekak garenik"


"Haurrek gauza asko jakitea nahi dugu: ingelesa, informatika, musika... Hori lehenesten dugu eta ez diegu aukerarik ematen bakarrik jateko, bakarrik jantzeko, gauza desberdinak esperimentatzeko, akatsak egiteko, norbere mugak proban jartzeko..."

ESPERIENTZIAK 1

ESTONIA: HEZKUNTZA-BERRIKUNTZARAKO ZENTROA

Begirada malgua, interaktiboa, parte-hartzailea eta teknologikoa eraikitzen

Hik Hasi-k apirilean Estoniara eginiko bidaia pedagogikoan Tallingo Unibertsitateko Hezkuntza Berrikuntzarako Zentroa bisitatu du. Estoniako curriculum nazionalen jasotakoarekin bat, profesionalen artean hezkuntzaren inguruko ikuspegia eraldatzea da haren egitekoa, eta irakaskuntza-prozesurako metodologia eta baliabide berriak proposatzea. Besteak beste, gaitasun sozialak sustatu nahi dituzte, bereziki talde-lanean aritzeko abilezia; hau da, ikasleek parte hartuz eta eginez ikastea, batak bestearengandik, irakaskuntza-prozesuko protagonista bihurtuz. Horretan guztian laguntzeko, ikasgela malguak diseinatzen ari dira, aulki nahiz mahai mugikorrek eta teknologia berrien erabilera errazteko bitartekoekin.



Oliver Hainsali aholkularia, irakasle-eskolako pasilloetan aurki daitezkeen horma-irudietako baten aurrean.

Maiatzeko zenbakian iragarri bezala, Hik Hasik bidaia pedagogikoa egin du apirilko oporraldian Estoniara, 20 laguneko irakasle eta hezitzaileen taldea lagun. Zenbaki horretan, Estoniako Gobernuko Hezkuntza eta Ikerketa Ministerioko Hezkuntza Departamentu buru Irene Käosaar-i eginiko elkarrizketan, azaldu zuen curriculum nazionalaren helburu nagusia 2020. urterako hezkuntzaren inguruko ikuspegia aldatzea dela, begirada ikasle bakoitzaren esperientzietan, interesetan eta potentzialtasunean jartzea. Hori lortzeko urratsen artean, hauek aipatu zituen: irakasle jantziak izatea, teknologia berriak erabiltzea

eta ikasketa-prozesuko parte-hartzea sustatzea. Bada, bete-betean ari dira jada norabide horretan lanean Tallingo Unibertsitateko Hezkuntza Berrikuntzarako Zentroan.

Prestakuntza berritzen

Zentro horrek Tallingo Unibertsitateko irakasle-eskolako ikasleekin nahiz eskoletan lanean ari diren profesionalekin egiten du lan; horiekin, eta horientzat. Curriculum nazionalak eskaturiko irakasle jantzi horiek prestatzea da haren egitekoa, eta helburu berriek eskatzen duten begirada-aldaketa eragitea horientan; baita jada irakasle gisa lanean ari direnen artean ere.



Horrekin batera, lanean ari dira ikaslea ikaskuntza-prozesuaren protagonista egingo duen metodologia nahiz baliabide berriak diseinatzeko, ikasleen parte-hartzea areagotzeko metodologiak sortuz eta probatuz, zehazki. Era berean, ikasleen gaitasun sozialak garatu nahi dituzte partaidetzaren bidez, bereziki elkarlanerako gaitasuna.

Horrela, Arazoetan Oinarrituriko Ikaskuntza (*Problem Based Learning*) deituriko sisteman oinarrituriko proiektuak diseinatzen ari dira. Proiektu parte-hartzaileak eta diziplina anitzekoak dira, eta, planteatzen zaien arazo bati irtenbidea aurkitzeko, hainbat jakintza-arlo baliatu behar dituzte ikasleek, artea, matematika edota zientzia, adibidez. Proiektu horien bidez, ikasgaiak modu soltean eta trinkoan irakasteari uztea da helburua, eta ikasgai guztiak fluxu batean baliatzea ikasleek, modu bateratuan.

Irakasle-eskolako ikasleek diseinatzen dituzte proiektu horiek, eta, praktikaren bidez probatzen dituzte.

Horretarako, lider-eskolak deritzen 23 ikastetxerekin elkarlanean ari dira, eta Estoniako eskolen artean dagoen aniztasuna islatzen saiatzen dira aukeratutako ikastetxeen bidez; hala, askok eta askok hartzen dute parte, haur-eskolek, oinarrizko eskolek, bigarren hezkuntzako zentro edo *gymnasium* direlakoek, landainguruetakoez nahiz hiriguneko eskolek, handiek nahiz txiekiek, errusiar hizkuntzan lan egiten duten eskolek nahiz estonieraz aritzen direnek... hartzen dute parte.

Hala, ostiraletan, lider-eskola horietako ikasleak nahiz irakasleak Hezkuntzaren Berrikuntzarako Zentrora joaten dira, eta ikasleek praktikan jartzen dituzte diseinaturiko proiektuak. "Adibidez, taldetan bildu, eta honako planteamendu hau egiten diegu haurrei: uharte abandonatu batean zaudete, eta hortik ateratzea lortu behar duzue. Haientzat, jolasa da, baina, lehenengo, gai izan behar dute non dauden kokatzeko, zer landare di hazten den inguru horretan aztertu behar dute, eta zer

aukera dituzten elikatzeko; mezu bat sortu eta zabaltzeko gai izan behar dute, eta, azkenik, uhartetik ateratzeko aukera emango dien itsasontzi bat eraiki behar dute eskulan modura; itsasontzi horrek flotatu egin behar du, eta patioan probatuko dugu", dio Hainsaluk.

Adin askotako ikasleek hartzen dute parte; beraz, puzzle baten gisara daude diseinatuta proiektuak: ikasleak zenbat eta zaharragoak, orduan eta pieza gehiago eransten dizkiote puzzleari, eta, beraz, konplikatu egiten da proiektua.

Hainsaluren arabera, ostiraletako saio horien helburua ez da ikasleak trebezia sozialetan eta ikaskuntza-bide berrietan trebatzea; ariketa hori irakasleei zuzenduta dago, ikasleen parte-hartzea sustatuz diziplina anitzen ikuspegitik nola lan egin daitekeen ikas dezaten, ondoren, eskoletara eramateko eta eskoletan aplikatzeko. Lider-eskolekin egindako saiakeren bidez, aukera dute ikasleekin zerk funtzionatzen duen eta zerk ez aztertzeke, zerk

"Gure azken helburua aholkularitza-zerbitzurik eman beharrik ez izatea da. Hau da, eskolek beraien garapen eta eraldatze-prozesuan lidergoa hartzea nahi genuke; nolabait eskolak berrikuntzarako eta garapenerako haztegi izatea".



balio duen eta zer hobetu behar den ikusteko, Hezkuntzaren Berrikuntzarako Zentroan. Eta azken helburua 2020rako Estoniako eskola guztietan metodologia hori aplikatzea da, curriculum nazionalen zehaztu bezala.

Prestakuntzak ez du etenik

Bestalde, Hezkuntzaren Berrikuntzarako Zentroak aholkularitza-zerbitzua ematen die bai irakasle-eskolako ikasleei eta bai jada lanean ari diren irakasle profesionaleri. Zenbaitetan, eskola batzuek zentroa jotzen dute 2020rako egin behar duten eraldaketa-prozesu horretarako laguntza eske, eta aholkulari talde bat jartzen dute horien zerbitzura: psikologoak, didaktikan adituak, garapen-eragileak... "Dena dela, gure azken helburua aholkularitza-zerbitzurik eman beharrik ez izatea da. Hau da, eskolek beraien garapen eta eraldatze-prozesuan lidergoa hartzea nahi genuke; nolabait eskolak berrikuntzarako eta garapenerako haztegi izatea".

Irakasleek ere aukera dute maila pertsonalean Hezkuntzaren Berrikuntzarako Zentrora joateko, euren jarduna berritzeko asmoz. Normalean, eskolak berak finantzatzen du prestakuntza hori.

Espazioa metodologiaren zerbitzura

Irakaskuntza-prozesu parte-hartzaileagoa egiteko, prozesu hori elkarlanean oinarritzeko eta teknologia berriei ere lekua egiteko, metodolo-

gia ez ezik metodologia hori aplikatzea posible egingo duen espazioa ere eraikitzen ari dira Hezkuntzaren Berrikuntzarako Zentroan. Dagoeneko abian dira Tallinngo irakasle-eskolan ikasgela pilotu horietako zenbait, probatu eta beharrezko hobekuntzak egin ondoren, 2020rako ikastetxeetara hedatzeko asmoz.

Ikasgela malguak eta mugikorak dira, eta eredu desberdinetakoak. Zenbaitetan, ikasle bakoitzaren aulkia eta mahaia batuta daude, gurgildun aulki moduko batean. Beraz, ikasleak edozein unetan mugi daitezke beren mahai eta guzti, beste ikasleengana hurbiltzeko, taldeak osatzeko edo elkarlanean aritzeko. Beste zenbait eredutan, ikasgeletan taldetxoak hartzeko mahaiak daude prestatuta, eta malgutasuna ikasgelako baliabideetako bat da. Izan ere, sabaitik zutabe batzuk jaitsi daitezke gelako hainbat gunetan, eta, horien bidez, taldeek argindarrerako eta Internetarako sarbidea lortzen dute. Modu horretan, ikasleen esku uzten diren tableten bidez lan egiten dute taldean. Ikasgelako hainbat puntutan, pantailak daude, eta, taldetxoetan egindakoa talde handian partekatzeko, bakoitzak bere tabletan eginikoa pantaila horietan erakuts daiteke ondoren. Irakaslearen mahaiari dago-kionez, berriz, oraingoz hortxe mantentzea erabaki dute, baina Hainsaluk aurki desagertuko den esperantza agertu du. "Nik uste dut irakasleak ez duela bere mahaia behar. Orain-

goz, irakaslearentzako gune horri eutsi diogu, baina ez du izango orain arte ikasgelan zuen gune zentrala".

Irakasle-eskolako korridoreetan, edozein puntutan aurki daitezke elkarlanerako espazioak; teknologiarako sarbidea duten mahaiak, adibidez, baina baita ideiak partekatze espazioak ere. Hala, edozeinek bere ekarpena egiteko eskueran, paperezko horma-irudiak daude korridoreetan, "Zure ustez zer da irakasle izatea?" eta horrelako galdera iradokitzaileekin.

Malgutasuna, interakzioa eta teknologia, beraz, ikasleen zerbitzura. Horrelakoak izango dira Estoniako ikasgelak urte gutxi barru. Eta espero dute malgutasun hori lagungarria izatea irakasleentzat ere, beraien metodologiak garatzeko, irakasteko metodo berriak esploratzeko.

Estonian sorturiko filosofia

Hezkuntzaren inguruko ikuspegi hau ez da berria, oraindik aplikatzeko egon arren. 1960an sortu zen, Estonian bertan, Johaness Käis pedagogoen eskutik, eta finlandiarrek ere erreferentzia gisa hartu dute, beraien hezkuntza-sistema garatzerakoan. Baina Sobietar Batasunaren baitan zen orduan Estonia, eta hezkuntzaren inguruko ikuspegi akademizista zen nagusi. Orain, herrialde independente gisa, aspaldikoa eta, aldi berean, bide berri bat urratzeko aukera izan du Estoniak.

Jakin^{•eus}

herria kultura hizkuntza

60 urte euskal kultura eta
pentsamendua aztertzen eta zabaltzen

HARTU, IREKI, IRAKURRI, ELIKATU

Hik Hasi-ko harpidedun zarelako, eskaintza berezia duzu

Hurrengo hiru zenbakiak **doan**
formatu digitalean

Urteko harpidetza
%20 merkeago, 48 euro

jakinkide@jakin.eus helbidera idatzi edo 943 218092 telefonora deitu
www.jakin.eus



ESPERIENTZIAK 2

SAKANAKO ESKOLA TXIKIAK

Iturri zaharreko ur berria

Olaztiko, Urdiaingo, Iturmendiko, Arbizuko eta Uharte-Arakilgo (Nafarroa) eskola txikiek beren talde-identitatea definitzeko prozesua egin dute ikasturte honetan, iraganaz hausnartzeko eta etorkizuneko kultura eta balioak irudikatzen. Apirilaren 28an aurkeztu zuten Sakanako eskola txikien identitate kolektiboa deskribatzen duen dokumentua jendaurrean, Lakuntzako kultura etxean. Bost eskoletako ikasleak, irakasleak, gurasoak, ikasle ohiak, herri-eragileak, edota Sakanako ikastoletako kideak ez ezik, aurkezpen-ekitaldian izan ziren Nafarroako Gobernuko ordezkariak ere; beste batzuen artean, Jose Luis Mendoza Hezkuntza kontseilaria eta Aitor Etxarte Eskola Kontseiluko presidentea.

Iraganetik etorkizunerako bidaia egitea, horixe izan da Sakanako eskola txikien asmoa. Izan ere, Olaztiko, Urdiaingo, Iturmendiko, Arbizuko eta Uharte-Arakilgo bost eskolek elkarrekin komunean dituzten oinarriak zehazteko lanketa bat egitea erabaki zuten ikasturte hasieran, alegia, Sakanako eskola txikien talde-identitatea zehaztea. Hala, Juan Miguel Ruiz aholkulari eta *coach*-rengana jo zuten laguntza eske, eta hark eskola-komunitate osoa barnean hartuko zuen prozesu bat egitea proposatu zien. 2015-2016 ikasturtea eman dute zeregin horretan, eta fruituak apirilaren 28an aurkeztu zituzten, Lakuntzan egin zuten ekitaldian.

“Sakanako eskola txikiok gure identitatea zehazteko iraganetik etorkizunerako bidaia egin dugu. Zirrarez beterikoa izan da, ahaztezina eta, batez ere, hunkigarria. Negarra, irribarrea, harremana, aitortza, eskerra, partaidetza, mina, oroimena, enpatia, sormena, memoria, historia... Hori guztia bizi izan dugu prozesu honetan”, azaldu zuen ekitaldiaren aurkezleak. Prozesua hiru fasetan banatuta egin dute: lehenengoan, aspaldian eskolan ibilitako herritarrekin eta familiekin egin zuten lanketa, historian zehar gertatutako pasadizoak mahai gainera ateratzeko; bigarrenean, Sakanako ikastolei aitortza egiteko saioa antolatu zuten, “beraiei esker gaur egun ikastetxeetan euskaraz irakasten delako, ikastoletan

ikasleak baitira gaur egungo ikastetxe publikoetako irakasle asko”; amaitzeko, hirugarren fasean, ametsen aldia hasi zuten, eta ikasleei, gurasoei, irakasleei, komunitateari... nolako eskolak amesten dituzten irudikatzen eskatu zieten.

Lan horren guztiaren emaitza gisa, iraganaz hausnartzen eta etorkizunerako kultura eta balioak definitzen dituen dokumentua osatu dute. Izan ere, Lierni Galarraga Sakanako eskola txikien koordinatzaileak dioenez, sinetsita daude herriak bere eskola behar duela, eta eskolak, bere herria; eskolak herriari bizia ematen diola, eta herriak, eskolari; eta, horregatik, eskola txikiak eskola baino zerbait gehiago direla: “Jendea asko inplikatzeko da gure eskoletan: ikasleak, gurasoak, herritarrak... Eta horregatik guztiagatik izan da hain aberatsa gure identitatea zehazteko prozesu hau. Iraganeko zama arindu nahi izan dugu, iturri zaharreko ur berria garelako badakigulako. Gure artean ditugun proiektuak aurrera eramateko oinarri sendoa jarri dugu hala”.

Kultura, herriaren argia

Sakanako eskola txikien identitatea osatzeko egin duten lanean, kultura definitu dute lehenik, eta “herriko osagaiak borborrean jarriko dituen eltzea bezalakoa” izaten jarraitzeko konpromisoa hartu dute, bertako kultura, bizimodua, nortasuna eta



jakintza egunero elikatuz. Kultura-atalaren barruan, beste zenbait ideia ere definitu dituzte:

- **Hizkuntza: euskaratik eta euskaraz.** "Gure eskoletan, gure hizkuntza maite eta zaintzen duten herritarrak hezten ditugu. Euskara gure ondasuna dela erakusten diegu ikasleei. Hizkuntzak hurbildu egiten gaituela sentitzea nahi dugu".
- **Publikoa: zenbat buru, hainbat aburu.** "Publikoa gara, eta itxaropenez ikusten dugu nola ari den gure hezkuntza-komunitatea indartzen eta dagokion lekua hartzen. Hezkuntza-komunitatea da gure eskolen etorkizuna aukeratzen eta bideratzen duena. Herriko plaza bezalakoa gara, herri osoa han elkartzen duena eta ideia eta pentsamendu askotariko pertsonak biltzen dituena".
- **Aniztasuna: zubi ugari dituen herria.** "Zubiak bezalakoak gara, norbanakoen arteko loturak eraikitzen dituztenak; elkarrekin komunikatzen gaituztenak; hainbat identitate, erlijio, egoera sozial eta kultura lotzen dituztenak. Gure herriko haurrak plaza berean jolastu daitezten nahi dugu".
- **Ekitatea: desberdinak bezain berdinak.** "Ikasle guztientzat, direna direla eta dutena dutela, ekitatea nahi dugu. Sakanako egur-lotearen kasuan bezala, herritar guztiek eskubide berbera izan dezatela kultura eta jakintza eskuratzeko".

- **Errespetua: eman eta jaso, jaso eta eman.** "Gure eskoletan, harremanak errespetuan oinarritzen dira. Pertsona bakoitzaren duintasunaren aitortza bermatzen dugu. Gure eskoletatik botere-eta jazarpen-erabilera guztiak baztertzen ditugu. Eguzki-loreak bezalakoak izan nahi dugu, errespetua, zaintza eta babesgune ziurra eskaintzen duten eskolak".

Ikaslea abiapuntu, konfiantza oinarri
Kultura definitu ostean, Sakanako eskola txikiek beren balioen inguruko hausnarketa egin dute.

- **Familia: herri hezitzaileak, eskola herritarrak.** "Eskola herrira zabaltzen dugu, eta herria eskolan sartzen dugu. Ikas-komunitate aktiboa gara. Gure eskolako atea familiei irekia dago. Beraien nahiak eta gure beharrak bateratzen ditugu".
- **Harremanak: konfiantza oinarri.** "Eskola gure etxea da. Etxeko sutondoak ematen digun berotasuna eta goxotasuna aurkitzen dugu eskolan. Familiak ematen duen ziurtasun eta konfiantza bera sentitzen dute haurrek eskolan".
- **Sormena: ametsak eraikiz.** "Eskola honetan, ikasle sortzaileak hezten ditugu. Ikasle hartzaile izatetik sortzaile izaterako bidean indarra jartzen dugu".
- **Talde-lana: elkarrekin bideak eginez.** "Klaustroa da eskolaren bihotza, irakasle topalekua. Han elkarri entzuten, begiratzen

eta laguntzen diogu, eta elkar errespetatzen dugu. Klaustroak komunikaziorako bideak irekitzen dizkigu, askotariko ideiak eta pentsamenduak elkar daitezten".

- **Pedagogia: ikaslea abiapuntu.** "Sakanako herri-eskola txikitian, ikasteko metodo aktiboak bultzatzen ditugu. Ikertzeko, manipulatze, elkarlanean aritzeko, esperimintatzeko eta hipotesiak egiteko aukera du haurrak gure eskoletan. Ikasleen plazera eta ongizatea bilatu nahi ditugu".

Jolastuz ikasi

Prozesua bukatzeko, Sakanako eskola txikien kultura eta balioak definitu ostean, etorkizunera begira jarri ziren. Horretarako, gaur egungo ikasleekin elkartu ziren, eta haien ametsekin bat egin zuten. Besteak beste, Olaztiko, Urdiaingo, Iturmendiko, Arbizuko eta Uharteko Arakilgo ikasleek diote jolastuz ikasi nahi dutela, arte plastiko gehiago nahi dutela, ez dutela etxerako lanik nahi, etxean gurasoekin egon nahi dutela, zirrarei buruz hitz egin, zer gertatzen zaien adierazteko espazioak eduki, arazoak beraien artean eta hitz eginez konpondu, entzunak izan, elkarri lagundu, handiek txikiekin denbora gehiago igaro eta erabakiak hartzeko aukera izan.

Ekitaldiari amaiera emateko, etorkizunari keinu eginez, Sakanako bailara euskaratik eta euskaraz, sormenez, kantuz, dantzaz, hitzez, maitasunez, edertasunez, jakintzaz, kulturaz, balioz, kolorez eta aniztasunez betetzeko konpromisoa hartu zuten.

ESPERIENTZIAK 3

GARAPENERAKO HEZKUNTZA ANTZEZPENAREN BIDEZ

Egingo al dugu antzerki bat?

Sarritan, eragozpenak aurkitzen ditugu Garapenerako Hezkuntza ikasgelan txertatzeko orduan. Horietako bat, Haur Hezkuntzan sarri agertzen dena, honako galdera honen atzean dagoen kezka da: *Ez al dira txikiegiak jakiteko (...) Txikiegiak, pobrezia-eta baztertze-egoerak ezagutzeko?* Hitz egin dezagun horri buruz.

Artikulu honetan, familiek nahiz irakasleek duten kezka horri erantzun bat ematen saiatuko naiz, *Egingo al dugu antzerki bat?* estrategiaren adibide praktikoa abiapuntu hartuta; Haur Hezkuntzako nire ikasgelan, ia egunero lantzen dudana estrategia da, hain zuzen¹.

Egia da, gelan gai “labainak” txertatzen ditugunean –hala nola ebola, lurrikara bat, eta abar–, haurrek duten adinerako gai egokia ote den kezka sortzen zaigula lehenago edo geroago. Haur Hezkuntzan dudana



Kongsue Salinas Ramos

Irakaslea

* Informazio gehiago:
kontxusalinas@gmail.com eta
educacionparaeldesarrollo.info.

esperientziak argi eta garbi erakutsi dit: “Gai batzuk ez dira beste batzuk baino egokiagoak”; gai horiek nola eta zertarako txertatzen ditugun da gakoa.

Zertarako erraz ulertzen da; galdera horren erantzuna Garapenerako Hezkuntzaren (GH)² helburuetan nahiz curriculumean bertan aurki dezakegu.

Garapenerako Hezkuntzari (GH) buruz dauden definizioak hartzen baditugu, hezkuntza mota horren ikuspegia gelan txertatzeak sustatzen dituen oinarrizko helburuak atera ditzakegu:

- Herritartasun global baten parte direla jabetzea
- Beste errealitate batzuk ezagutaraztea
- Kontzientzia kritikoa garatzea
- Aldatzeko gaitasuna, aldaketaren eragile izatekoa

Guztiok elkarrekin konektatuta gauden herritartasun global baten parte garena eta gure ekintzek beste pertsona batzuegan eta munduko beste leku batzuetan eragina dutela jabe-araztea eskatzen du ikasgelan GHren ikuspegitik lan egiteak. Erantzunkidetasun hori islatzen duen adibide bat da *elastikoaren* adibidea, ekoitzi den lekutik gure etxeko armairura heldu arte bide luzea egin baitu. Era bateko edo besteko ondorioak dituzte gure



kontsumo-ohiturek, non erosi, zenbat erosi eta horrelakoak erabakitzeak.

Zertarako galderarekin jarraituz eta curriculumari dagokionez, azpimarratu behar da aurrez aipatu ditugun GHko helburuak behin eta berriz ageri direla hezkuntzako etapa gutzietako curriculumean. Haur Hezkuntzatik hasita, jasota dago ikaskuntza-esparruak (jarrerak, prozedurak eta kontzeptuak) sortzeak duen garrantzia; izan ere, ikaskuntza-esparru horiek: **“Mundua interpretatzen eta munduan modu aktiboan parte hartzen has daitezten lagunduko dute”**³.

Horrez gain, kontuan hartzen badugu, Hezkuntzaren Lege Organikoak (LOE gaztelaniaz) ezartzen duen hezkuntzaren helburuetako bat, Hezkuntzaren Kalitatea Hobeitzeko Legean (LOMCE gaztelaniaz) aldaketarik izan ez duena, “solidaritaterik eta herrien arteko lankidetzatza”⁴ dela, zertarako galderari erantzuten ari gara. Gainera, azpimarratu behar da GHren erreferente bat dela gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna.

Gakoa, beraz, nola galderan dago: *nola txertatu gelan pobreziarekin eta baztertzearekin lotutako gaiak?*

Argi dago pertsona batzuek bizi dituzten sufrimendu- eta izugarrikeria-egoeren argazkiak (hondamendi

naturalak, gerrak, gosetea, etab.) oso gogorrek direla, eta haurrengan, eta baita geuregan ere, bihozmina eta beldurra eragiten dituztela. Hala ere, ez da beharrezkoa errealitatea bere gordintasun osoan erakustea. Beren esku-hartzeen bidez aldaketak eragin ditzaketen testuinguruan haurrak protagonista gisa kokatzea da helburua. Eszena lazgarri bat antzetzuko bagenu besterik gabe, frustrazioa eta egonezina besterik ez genuke sorraraziko. Beraz, ez dugu *munduko goseari* buruz hitz egiterik nahi abstrakzio mailan, urduritasuna sortuz eta errudun sentiaraziz. Helburua beste bat da: ezagutza hori geureganatuz (adibidez: “milioika pertsona gosez daude”), bidegabekeria horren aurrean kontzientzia kritikoa eta horrelako bidegabekeriak baztertzeko jarrera sorraraztea (“oso gaizki dago hori, ezin da onartu”), eta egoera hori aldatzeko ekintzetan parte hartzeko nahia sustatzea, horretarako aukerak eskainiz (“gure gelan ez da janaririk botatzen”), *kontsumo arduratsua*-ren bidez, *elikadura-burujabetza*-ren bidez, eta abar.

Zer esan nahi du 'Egingo al dugu antzerki bat?' egitasmoak?

Egingo al dugu antzerki bat? proposamena bizitza errealeko egoera bat antzetzean edo dramatizatzean

datza. Haur Hezkuntzako gure gelan *antzerkia* deritzogu, hitz horrekin berehala ulertzen baitute antzetzpen bat egin behar dugula; beraz, horrelaxe deitzen diogu. Hala ere, ez da antzerki bat zehazki; gure kasuan, ez dago aurrez idatzita dagoen elkarrizketarik, buruz ikasi eta antzetzten den elkarrizketarik, eta dekoratuak ere ez ditugu modu metodikoan prestatzen. Aurrez ezer prestatu gabe sortzen da, modu espontaneo batean. Dramatizazioa, eszenaratzea eta abar ere dei geniezaioke.

Antzerkiaren bidez –berriro diot horrela deitzen diogula haurrek gertuago sentitzen dutelako–, pobrezia- eta baztertzeko-egoerak bizitzen ditugu, bai eta izan ditzaketen irtenbideak ere; horrela, aurrez aipatutako Haur Hezkuntzako curriculumak ezartzen duen moduan, haurrek aukera bikaina dute “mundua ezagutzen eta bertan modu aktiboan parte hartzen hasteko”. *Egingo al dugu antzerki bat?* estrategiarekin enpatia, bestearen lekuan jartzeko gaitasuna, rol-aldaketa eta abar lantzen ditugu.

Egingo al dugu antzerki bat? proiektua munduan gertatzen diren bidegabekeria-egoerak birsortzean datza, aurrez ezer prestatu gabe eta modu espontaneo batean, egoera horiei irtenbide bat ematen lagundu dezakegula jabetu ahal izateko.



Oro har, goizeko batzarrean egiten ditugu antzeppen horiek. Batzuetan, neuk proposatzen dut, asko baikara eta hitz egiteko txanda errespetatzea kostatu egiten baitzaie; une horietan, egiten ari garen hori bideratu egin behar da (Haur Hezkuntzan ohikoa da jarduera aldatzea, altxatzea, salto egitea, abestiren bat abestea, eta abar, motibazioari eusteko eta lantzen ari garenekin jarraitu ahal izateko). Beste batzuetan, beraiek eskatzen dute: *zergatik ez dugu antzerki bat egiten?* Egiatan, berehala sortzen da magia, suspertu egiten dira, eta gehienek baietz esaten dute; beraz, unean sortzen diren pertsonaia nagusiak aukeratzeko zozketa eginez hasten gara... Adibidez: “ibaira joan eta ura edan ondoren gaixotu egiten den haur bat behar da...”. Bururatzen zaizkien pertsonaia gehitzen joaten dira; gehienetan, horiek antzezteko interesa dutelako bururatzen zaizkie... “Nik ere gaixorik dagoen hauraren ama izan nahi dut!”. Negoziatu egiten dugu..., beren interesen arabera ados-

tasunetara heltzen gara... “Ongi da, haurrak bi ama ditu”... “zer pertsonaia gehiago behar dira...?”.

Adibide batzuk

- **Malaria:**

Olentzerok⁵ bi operari ekarri dizkigu: bata, sendagilearen materiala (esku-larruak, txapelak, galtzerdiak, mantalak, gazak, endoskopioa, etab.), eta, material horrekin, *landa-ospitale* bat egin dugu ondoren; eta bestea, Intermon Oxfam-en *tori operari hau...-rentzat* izeneko ekimenarekin lotuta dago; guk zuzenean jasoko ez dugun operari bat da, munduko beste leku batzuetako pertsona batzuei zuzendutakoa, hain zuzen. Sudanera eramateko 6 eltxo-sare jaso ditugu operari.

Opor ondorengo egunetan, galderak sortzen dira, etxetik *altxor txikiak* ekartzen doazen heinean; guk bizi ditugun egoeren oso bestelakoak diren egoerak ulertzen eta antzezten laguntzen digute horiek guztiek, aldi berean gure arreta

erakartzen baitute. Neskatila batek malariaren eltxoaren bi argazki ekarri ditu, eta egoera antzezten hasi gara: “malariaren eltxoak heldu digu..., eta gaixotu egin gara... Edota eltxo-sarearen barruan lotan dago familia bat, eta eltxoak barrura sartu nahi du, baina ez du sartzerik lortzen”. Munduko beste leku batzuetan eltxo-sareak zein garrantzitsuak diren ondorioztatzen dugu. Operari praktikoa eraman du Olentzerok Sudanera, bai horixe!

- **Ebola:**

Sendagilearen materialak geure gorputza ezagutzen laguntzen digu, eta higie- eta osasun-ohitura onak geureganatzeak duen garrantziaz jabetzen; baina, horrez gain, gure trebetasun sozialak hobetzen, beste pertsona batzueganako enpatia izaten, besteen lekuan jartzen, beste leku batzuetako pertsonak dituzten beharrak ezagutzen, eta besteei laguntzea eta guk behar dugunean besteen laguntza jasotzea zein garrantzitsua den jabetzen ere laguntzen digu.

Afrikan, bada ibai bat Ebola izenekoa... Hortik zabaldu zen hedabide guztietan aipatzen den gaixotasun larri hori, urduritasuna, beldurra eta ezintasuna eragiten digun gaixotasun hori. Gaixorik gaudenean besteek gu zaintzeak (guztiak “osasunerako eskubideak” ezin direla baliatu jabetuta) zer ondo sentiarazten gaituen antzeztu nahi izan dugu gelan, eta laguntza humanitarioa zein garrantzitsua den. Arazoaren ikuspegi positibo horretan oinarrituta, modu egokian txertatu ahal izango dugu gaia gelan, ongi sentiaraziko gaituen modu batean: “Kezkatu egiten gaitu beste leku batean gertatzen ari denak”. Gelan, Sierra Leonara eramango gaituen hegazkina margotu dugu lurrean, eta rolak banatu ditugu: bidaian zukuak eta aldizkariak eskainiko dizkiguten hegazkin-zerbitzariak, segurtasun-neurrien berri emango digutenak: *lotu gerrikoak*. Iritsi gara, sendagilearen materialarekin eta gaixotasunaren kutsadurari aurrea hartzeko beharrezkoa den informazioarekin; sendagilea haur bat besoetan zuela ikusi genuen lehenengo aldian, harritu egin ginen... *Zer zen hura? Martetar bat?*

Astronauta bat?

• Ura, sabela hustea, lurrikara...:

Uraren garrantziaz eta uraren kontsumo arduratsuaz jabetu zitezen saiatu gara. Horretarako, komuneko ura kendu dugu egun oso batez. Jakina, aurrez gaia landu dugu: *zer gertatuko litzateke... ura kenduko bagenu?* Haur batzuei ziurgabetasuna sortzen zien horrek, “ez dut gogorik ura kentzeko” zioen beste batek (gogo falta horren atzean beldurra dago, urduritasuna...). Horregatik, ura kendu baino egun batzuk lehenago, antzeztu egin dugu egoera. Irtenbideak bilatu ditugu guztion artean: “jolastokiko iturrira joan ur bila”, “ur hori erabili”. Hiru ontzi ditugu: ontzi bat horia da, edateko ura duena; eta beste biak urdinak dira, eta horietara ur-hondakinak botako ditugu, gero komunean berrerabiltzeko... Hori lantzen ari garen bitartean, haurrei azalduko diegu edateko urik ez duten pertsona asko daudela, askok komunik ez dutela, eta kalean hustu behar izaten dutela sabela, etab. Azkenean, azpiegiturak hobetzeko lankidetzaproiektu batean parte hartzen bukatuko dugu, ziur...!

'Egingo al dugu antzerki bat?' es- trategiaren balioespena. Estrategia horren hezkuntza-gaitasuna

Edozein hondamendi (naturala nahiz gizakiak eragindakoa) ikaragarria da haurrentzat zein helduontzat; traumak sor diezazkiguke. Eta bidegabekeria-egoeren eta horien ondorioen aurrean bihozgabe ere bihur gaitezke. Horregatik, beste ikuspegi batetik txertatu behar dugu gelan, hau da, kontzientzia kritikoa (*hori ez da bidezkoa, oso gaizki dago!*) eta parte-hartzearen ikuspegitik (*zer egin dezakegu gerta ez dadin?*, eta jada gertatu bada, *zer egin dezakegu aldatzeko?*).

Egingo al dugu antzerki bat? es-
trategiaren erabilera sistematikoak gauzak alda daitezkeela barnera-
tzen laguntzen du, eta gelako giroa interakzioarako leku bizi eta ludiko bilakatzen du. Hondamendia jolas sinbolikoaren bidez antzeztean, haurrei aukera ematen diegu antzezten ari diren egoera hori kontrolatzeko eta menderatzeko ahalmena gara dezaten. Garrantzitsua da laguntza-

eta elkartasun-ekintzak txertatzea ere, ingurune hurbila nahiz urrunekoa hobetzen parte har dezaketela senti dezaten.

Horrez gain, honako alderdi hauetan islatzen da duen hezkuntza-gaitasuna:

- Motibazioa, parte hartzeko gogoia, indartzea lortzen du. Ludikoa eta dibertigarria da.
- Sormenaren eta irudimenaren gara-pena sustatzen du.
- Ahozko adierazpena hobetzen du. Garapen emozionala eta soziala lantzen dituen jardura da. Gelan eta etxean zirrarak eta sentimenduak adierazten laguntzen die (bizipenak dokumentatuta daramatzate, gelako proiektuen bidez).
- Enpatia, bestearen lekuan jartzeko gaitasuna, garatzen laguntzen du. Beren burua askotariko roletan jartzen ikasten dute, eta askotariko erantzunak ematen.
- Beste egoera eta errealitate batzuk ezagutzeko aukera eskaintzen die.
- Beren esku-hartzeak aldaketak eragiten dituela jabetzen dira.
- Komunitateak bidegabekeriei, hondamendiei eta abarri emandako erantzunak ezagutzeko interesa handitzen da.
- Lankidetzarako sentimendua eta taldean ondo pasatzeko sentimendua sortzen dira ikasleengan. Esperientzia positiboak partekatzen dira berdinen artean.

Laburbilduz, *Egingo al dugu antzerki bat?* estrategia tresna egokia da Haur Hezkuntzako etapatik herritar kritiko, aktibo eta parte-hartzaileak eraikitzen hasteko. Gainera, azpimarratu behar da interes soziala duten gaiak gelan txertatzeak bidezkoagoa eta zuzenagoa izango den gizarte bat eraikitzeko helburura gerturatzeko gaitzela, gizaki-kontzientzia berri bat sortzeko ikuspegi utopikoa hartuta.

Amaitzeko, argitaratu dudana liburua irakurtzera gonbidatzen zaituztet: *Acercando la Educación para el Desarrollo a la Escuela. Una mirada internacional, una mirada local. Zer da Garapenerako Hezkuntza? Zer bilakaera izan du? Badu lekuri curriculumean? Zer nolako hezkuntza-gaitasuna du?...* Liburuan aurkituko dituzue galdera horien guztien erantzunak.

“Antzezenaren bidez, pobrezia- eta bazterte-egoerak bizitzen ditugu, bai eta izan ditzaketen irtenbideak ere; horrela, Haur Hezkuntzako curriculumak ezartzen duen moduan, haurrek aukera bikaina dute mundua ezagutzen eta bertan modu aktiboan parte hartzen ikasteko”

Oin-oharrak:

¹ Gaur egun, 4 urteko 25 haurren tutorea naiz HHko eta LHko Iruñeko Bernart Etxepare ikastetxean.

² Gai honi buruzko bibliografia oso ugaria da. Kapituluaren amaieran, argitaratu dudana liburua aipatzen dut; Garapenerako Hezkuntzaren definizioak eta kontzeptuaren bilakaera jasotzen dira liburu horretan.

³ Nafarroako Foru Erkidegoko Haur Hezkuntzako curriculumetik ateratakoa. Arloak, 5. artikulua.

⁴ 2. artikulua, Hezkuntzaren helburuei buruzkoa (LOE). Ez du aldaketarik izan LOMCEn.

⁵ Olentzero ikazkina da. Neguko solstizioan, menditik jaisten da, eta ikatza uzten du etxeetan. Ikatza garai batean oso estimatua bazen ere, beste zentzu bat eman zaio denborarekin, eta, gaur egun, opariak ekartzen ditu; ikatza, berriz, ongi portatu ez direnei ekartzen die.

EKARPENAK

SORTZEN ELKARTEA

25 urte euskal eskola publiko berriaren alde lanean

Eskola euskalduna, autonomia, demokratikoa, laikoa, zabala, hezkidetzaila, kalitatezkoa eta integrazaila helburua hartuta, euskal eskola publiko berria eraikitzeko lanean jardun du Sortzen elkarteak 25 urtez. Urte horietako ibilbidearen balorazioa egin, eta uneotan eskuartean dituzten erronken berri eman diote Hik Hasiri elkarteko kideek.

1 991. urtean sortu zen ofizialki Sortzen elkarteak, baina zimenduak hamar bat urte lehenago jarri zituen: “80ko hamarraldi hasieran Langile ikastolaren bueltan talde bat sortu genuen, eta nolako eskola nahi genuen, horretarako norantz jo behar genuen, zer egiteko prest geunden, etab. hasi ginen eztabaidatzen. Hasiatik garbi geneukan euskal eskola publiko bat nahi genuela”, kontatzen du Jone Errazkin Hernaniko Langile ikastolako irakasle ohiak. Helburu horrekin, herri-mailan antolatzen ez ezik, beste hainbat ikastolarekin, gurasorekin eta erakunderekin ere sare-

lana bideratzen hasi ziren, Euskal Herri mailan egituratzeko xedez.

Mugimendu haren emaitza izan zen 1991. urtean Hernanin egin zen kongresuan Sortzen elkartearen eratzeari buruzko gune zabala ireki gisa sortu zen, euskal eskola publiko eta berria aldarrikatzeko: eskola euskalduna, autonomia eta demokratikoki kudeatua, kalitatezkoa eta integrazaila, laikoa eta hezkidetzan oinarritua, osoki finantzatua eta lan-esparru berri batean kokatua zena. 90eko hamarraldiaren hasiera hartan, ordea, izan zen elkartearen eratzeko bestelako arrazoirik ere. Izan ere, 1993an Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan onartu zen Eskola Publikoaren Legearen atarian zeuden ikastolak.

1993ko Eskola Publikoaren Legearen ondoren, baina, euskal hezkuntza-komunitatearen liskarrak tarteko, Sortzen desagertu egin zen EAEn, eta Nafarroan zentratu zuen bere jarduna, euskara eta euskal kultura lurralde osoan zabaltzeko xedez. Nafarroako Eskola Publikoaren Elkarteak izatera pasatu zen hala. “Sortzen elkarteak funtsezko zeregina bete du Nafarroan. Euskal irakaskuntza aldarrikatzeko herritik sortzen diren dinamiken bultzatzaile izan da. Batean eta bestean sortu diren mugimenduak kohesionatu ditu, eta indarra, konfiantza eta babesa eman die. Gurasoak, irakasleak eta herritarrak elkartzeko gai izan da”,

aipatu du Kalen Astiz Zizur Nagusiko Erreniega ikastetxeko irakasle ohiak.

Sortzenek bere jarduna Nafarroara mugatu zuen urte hartan bertan, Ikasbatuaz elkarteak sortu zen EAEn, sare publikora baturiko ikastolek elkarrekin antolatuta jarraitzeko zuten beharrari erantzuteko. Sortzaileetarik asko Sortzen elkartearen hastapenean parte hartutakoak ziren, eta hasiera hartan Sortzeneko finkatu zituzten helburuei jarraituz eratu zen Ikasbatuaz ere. Publikazio-prozesu korapilatsu bati aurre egiteko beharrak batu zituen. “Publiko bihurtu ziren ikastolek lortu zuten eskola publikoaren barruan, eskola egiteko beste eredu bat mantentzea; azken batean, publiko bihurtu ziren ikastolek mantendu zuten nolabait euren izaera, eta gaur egun ere zenbaitetan mantentzen dira hainbat ezaugarri”, dio Bego Bitorika Sortzeneko koordinatzaileak.

2000. urtean, berriz, ikusirik xede berak gidatuta ari zirela lanean, Sortzenek eta Ikasbatuazek elkarrekin erabaki zuten. Hainbat helburu iparrean jarrita jarraitu zuten lanean, Sortzen-Ikasbatuaz izenarekin. Besteak beste, hauexek: euskal hizkuntza eta kultura sustatzea, ikasketak euskaraz egiteko aukera Euskal Herri osoan berma dadin exijitzea, euskal eskola publikoan dauden zerbitzu guztiak euskalduntzea, Euskal



Sortzen elkarteko kideak; ezkerretik eskubira: Jone Errazkin Hernaniko Langile ikastolako irakasle-ohia; Bego Bitorika Sortzen-eko koordinatzailea; Kalen Astiz Zizur Nagusiko Erreniega ikastetxeko irakasle ohia; eta Aitor Letamendi Donostiako Egia auzoko Aitor ikastolako gurasoa.

Herri osoan hedatuta dagoen eskola publiko euskaldunaren eredia defendatzea, edota pertsona libre, kritikoa eta autonomoen eredia bultzatzea, neska-mutil bakoitza nor izan dadin eta bere kabuz jokatzeko ikas dezan.

2012an, oster, elkarteak egin zuen hausnarketa-prozesu baten ondorioz, atzera ere iturburura jo, eta Sortzen izena berreskuratzea erabaki zuen, Ikasbatua ezabatuz.

Aipatutako helburuak lortzeko egin dute lan 25 urtean. Gazi-gozaok izan dira urte horiek, Sortzeneko kideen esanetan. Bitorikak aipatzen duen moduan, gaziak, euskal eskola publiko berri hori egituraterik ez delako lortu; baina, aldi berean, gozoak, urrats asko egin direlako. Beste elkarte eta erakundeekin elkarlanean jardun du Sortzenek lanean, baina berak bere kasa ere egitasmo ugari jarri ditu martxan. Eta, beti, eskola-komunitatearen premiei erantzun nahian.

Bide horretan, esaterako, Oinarrizko Hezkuntza Akordioaren osaeran parte hartu zuen elkarteak, 2006an, edota baita Udalbiltzarekin eta Ikas-tolen Elkartearekin batera euskal curriculumak definitzen, nahiz Ikasle Euskaldun Eleaniztunak sortzeko plana ontzen ere. Aixé edota Euskaraz mintza proiektuak gauzatu ditu, formakuntza-saioak antolatu, hitzal-diak egin, dokumentuak sortu

— ikastetxeen autonomiaren ingurukoa, jangelen kudeaketari buruzkoa, etxerako lanen gainekoa —, Euskal Herri osoan euskararen ofizialtasuna eta normalizazioaren bidean lan egiten, etab.

Sortzen elkarteak Euskal Herri-rako proiektu oso bat ordezkatzeko du. Hezkuntza sistema propioaren bidean, euskal eskola publiko berria eraikitzeko helburua da gurea. Izan ere, Bitorikak dioen moduan, Sortzenek, finean, edozein herritako eta edozein txokotako edozein eskolari, herritarri nahiz erakunderi eskua luzatu nahi dio denon artean euskal hezkuntza aurrera eramateko: “Zentzu horretan, oso kontuan izan behar dugu hezkuntzak ez lukeela ikastetxeen ardura soilik izan behar, herri osoarena baizik. Izan ere, nolako hezkuntza, halako gizartea eraikiko dugu”.

Parte-hartzea, funtzionamendurako ardatz

Hasieratik bilatu zuen Sortzenek euskal eskola publiko berria lortzeko bidean eragile askoren parte-hartzea. Hain zuzen ere, elkarteak sustatu dituen egitasmoetan, guraso, irakasle, ikasle nahiz herritarren parte-hartzea oso presente egon da beti. Eta, hain zuzen ere, Aitor Letamendi Egiako Aitor Ikastolako gurasoak Sortzenen lorpenen artean kokatzen du elkar-

teak parte-hartzearen inguruan egin izan duen irakurketa. “Prozesuak parte-hartzean oinarrituta bideratzeak beste erritmo batzuk eskatzen ditu. Niri iruditzen zait emaitzak ez direla azkartasunarekin soilik lotu behar. Eta, zentzu horretan, esango nuke Sortzen gai izan dela beste erritmo batzuk onartzeko, eta bakoitzaren beharretara moldatzeko. Eta niretzat hori garaipen izugarria da. Era berean, herri-mugimendutik abiatutako kezkaen bat egon denean, Sortzen prest agertu da beti horiei heltzeko eta, forma emanik, guztia kohesionatzen laguntzeko”.

Joan den 25 urteetan asko egin du Sortzenek, baina aurrera begira ere erronka handiak ditu, euskal eskola publiko berria lortzeko bidean. Etorbizunari begira jarrita, lau puntu nagusitan laburbiltzen ditu elkarteak taldearen eginbeharrak: Euskal Herri osoan eragina izango duen elkarte osatzea; irakaskuntzako beste agenteekin batera, Euskal Herri osorako hezkuntza-sistema propioa lortzearen alde lan egitea; ikastetxeak biltzen dituen sektoreen elkarlana ahalbidetzea — guraso, ikasle eta langileen arteko elkarlana, alegia —; eta ikastetxeak bere hezkuntza-proiektua garatzeko beharrezko dituen eskumenak lortzeko urrats berriak ematea.

GALDEIDAZU

NOLA ERAGIN EUSKARAREN ARNASGUNEETAKO IKASLE GAZTEEN HIZKUNTZA JARRERA ETA OHITURETAN?

Ez dakit. Ez dakit. Horixe izan daiteke erantzun bat, sasi-adi-tuaren trajea erantzi eta erabat biluztuta esan dezakedana.

Izan ere, oraintxe bertan hainbat irakaslerekin bilera bat egitetik nator eta irakasle gela hartan ere galdera horri erantzuna topatu ezinik ibili gara, Euskal Herriko beste makina bat txokotan bezala. Abiatzen dira kanpainak, egiten dira motibazio tailerrak, landu diskurtso berriak, bideratu hausnarketa... Eta? Gero eta gaztelania gehiago entzuten dute herri euskaldunetako ikastetxeetan. Orduan, berriz ere galdera bera: nola demontre eragin? Nola?

Ez daukat nik artxila-murtxilarik. Baina ikasle gazteak, udalerrri euskaldunak eta euskahalduntzea josten dituen saltsa honetan sartu nintzenetik han-hemenka esandakoak entzun, praktikan jartzeko proposamenak sortu eta zenbait gogoeta egin (behar izan) ditut. Eta horiexek aletzen saiatuko naiz datozen lerrootan. Neuretik. Pertsonala politikoa baita, eta ondorioz kolektiboa. Norbaiti balioko diolakoan.

Zer dago gure esku?

Eska nezake ETB2 ixteko. *Game of Thrones* eta internet bidez ikusten diren modako telesail guztien azpitu-tuluak euskaratzeko. Udako musika jaialdi erraldoietan euskaraz abesten duten taldeak besteen pare (agertoki eta ordutegi aldetik) jartzeko. Sare



**XABI AIZPURUA
UGARTE**
EUSKAL FILOLOGOA,
UEMA-KO TEKNIKARIA



sozialetan bolo-bolo ibiliko diren mikro-bideo irrizaleak sustatu eta hizkera biziberritzeko. Jon Gotzon *Gaztea* irratitik kaleratzeko. Eta abar, eta abar, eta abar.

Makroa eta *mikroa* bereizi beharra dauzkat, ordea. Aipatu berri ditudan faktore horiek guztiek eragiten dute gure gazteen hizkuntza jarreretan, erreferentzia partekatuekin funtzionatzen baitu pertsonen sozializazioak. Zeri buruz hitz egingo dut whatsappez lagunekin? Ba ikusten ari garenaz eta entzun berri dugunaz. Baina goiko erreferentzia gehienak maila makrotik datozkigu gaur-gaurkoz. Ez daude irakasleen esku. Ez daude maila mikroan. Alderdi politiko, parlamentu, administrazio kontseilu, enpresa publiko, diru laguntza, eta enpresa-presioen soka-tirak daude atzean. Nik egin dezakedanetik urrun daude. Beraz, jakinik horiek guztiek sekulako eragina dutela hizkuntza ohituretan, oraingoz geure esku dagoenaz ariko naiz. Eta bai, alimaleko tarrantari adabaki ttattarrak jartzen ari garen sentipen horrekin ere ariko naiz.

Pertzepzioa giltzarri

Egindako galderan jarrerak eta ohi-turak aipatzen dira, eta lotura duen beste eremu batera eraman nahi nuke gaia: hizkuntzen pertzepziara. Alegia, zer sumatzen dute ikasle gazteek hizkuntzei dagokienez? Hori jakinda, akaso hobeto ulertuko dugu euren

jokabidea. Kontuan hartu behar dugu udalerrri euskaldunetako edo arnasmuneetako nerabeez ari garela. Beraz, zer esaten die inguruak? Pertzibitzen al dute euskara, historian zehar, beste hizkuntza batzuek gutxitua izan dela? Nabaritzen al dute 35-45 urte arteko euren gurasoek pintxo-potean euskaraz bezala gaztelaniaz ere barra-barra hitz egiten dutela? Eurei interesa sortzeko pentsatu duten modako musika zein hizkuntzatan datorkie? Eta herri erdaldunago batera joandakoan, zer gertatzen da?

Laburrean eta nabardurarik gabe, honela erantzungo nituzke nik galderak: autoritateak eta eskolak euskaraz hitz egiten diete eta bere inguru hurbilean euskara da hegemonikoa (beraz, nork esan du gutxitua?). Guraso euskaldunak eurekin euskaraz aritu arren, sarri-sarri jotzen dute gaztelaniara lagunarteko eta bikoteko harreman informaletan (beraz, helduen berriketa gustagarriak, arauz kanpokoak, adar-jotzekoak... gaztelaniara maiz lerratzea arrunta da). Musika ingelesez entzuten dute gehienbat, gaztelania bigarren postuan dago (eta beraz, euskaraz ari diren taldeak...). Eta herritik irten eta gune erdaldunagoak topatzean gaztelaniara pasatzea naturala da.

Hortxe dago gakoa, naturalizat hartzen dituzte kontu horiek guztiak. Horrela funtzionatzen du euren inguruak. Kitto. Bizi duten horren atzean dauden mekanismo soziolinguistikoa zeintzuk diren ez die inork esan. Jakina, seguru asko inguruan duten jendeak ere ez duelako hausnartu horren inguruan. Hau da, gizarteak bere osotasunean daukan katarro txar bat dela hau, ez soilik gazteena. Eta salbuespenak salbuespen, etsai argia zen Frankismoaren mamua lausotu ondoren naturalizazioak bere bidea egin du. Hau horrela delako. Ia konturatu gabe egiten dugulako. Berez. Joera txikiak zirenak hasieran, aldatzeko ohitura zailak dira orain. Hezkuntzaren zereginetako bat horixe izango da, inork esan gabekoak mahaiaren gainean jartzea, horren bidez euren pertzepzioa alda dadin.

Nola dago kontua?

UEMATik hezkuntza proiektua landu

dugunean hainbat aldiz errepikatu dugu soziolinguistikako gaiak ez direla behar bezainbat lantzen hezkuntzan. Ez dugu ur berorik asmatu, ez. Lehendik ere hainbat adituk ondo asko identifikatutako gabezia da hori. Dena den, oraingo ahalegin honek badu berezitasun bat, UEMAK bere eragin esparru naturala duenez, udalerrri euskaldunei erreparatu diegu bereziki. Eta ikastetxeetan egindako ikerketatik hainbat ondorio atera dira.

Lehenik eta behin, askotariko egoerak daudela azpimarratu behar da. Izan ikastetxe motagatik, izan irakasleen ikuspegiagatik, edo izan testu-liburuengatik. Eskola batetik bestera soziolinguistika lantzeko modua zeharo aldatzen da eta, askotan, ikastetxe barruan ere diskurtsoak eta mezuak ez dira erabat berdinak. Beraz, nahiz eta soziolinguistikoki herri berdintsutan (edo berberean) bizi, ikasle batzuek jasotzen dutenak ez du zerikusirik besteek egiten dutenarekin. Aldiz, seguru nago matematikako erro karratuekin ez dela hori gertatzen, ezta ingelesezko aditz irregularren zerrendarekin ere.

Banaka eta taldean egindako elkarriketetan, irakasle batzuek aitortu izan dute euskarako mintegian soziolinguistikako gaiak ez direla ardatz nagusia, ez dutela formazio berezirik jaso aspaldian, edota ez dietela arretarik jarri atal hori lantzeko moduei. Jakina, badago salbuespenik, baina formazioan sakontzeko premia dagoela nabaritzen dute guztiak. Eta esango nuke, zorionez, azkenaldian ikastetxe ugari ari dela norabide horretan urrats berriak ematen.

Diskurtsoei dagokienez, hizkuntza ekologiarren ideia nagusiak argi azaltzeko zailtasunak dituzte askok, nahiz eta sumatzen den hainbat erakundek azken urteotan egindako lanak zabalkundea izan duela (Ekogunea, Garabide,...). Bestalde, UEMAK herri euskaldunak arnasmune gisa identifikatzeko egin duen lan ideologikoak ere oraindik ez du sustrai sakonik bota hezkuntzan eta kontzeptua arrotza zaio irakasle askori.

Txori-bistatik estrategia berria

UEMATik 76 herri izango ditu al-

Jardueretan ikasleak talde txikietan jartzen dira eta galdera zehatzen bidez hausnarketa lantzen da, kontzeptu teorikoez lagunduta. Bide hori jorratuz, pentsatzen dugu hizkuntzen gaineko irudipen faltsuak desegino ditugula apurka-apurka. Horrek, pertzepzioak aldatzen lagundu dezake, eta, azken buruan, jarretan eragina izan. Ez dadila izan behintzat gai hauek landu ez direlako.

dizkari hau kaleratzen denerako eta horrek esan nahi du elkarlanean ari diren udalerrri euskaldunen kopurua gero eta zabalagoa dela. Jakina, horrek berak lan egiteko modu propioa eskatzen digu bertako langileoi. Mapa guztiari gainetik begiratuko dion txori-bistarekin aritu behar dugu, ikuspegi orokorra lantzen da lehenbizi, eta estrategia orokor horretatik tokian tokiko egoerara moldatzen ditugu baliabideak. Azken hilabeteotan horretan ari gara. Zazpi ikastetxetan 400 ikasle inguruk proban jarritako unitate didaktikoak hobekuntzak eginda moldatu eta gure herrietara zabaltzen ari gara. Modu horretan, herri eta ikastetxe horiek guztiak lotuko dituen diskurtso eta ikuspegi bateratua josten hastea da helburua. Irakasleekin formazio-saio laburrak egiteaz gain, ikasgelan erabiltzeko material didaktikoa eskaintzen diegu normalkuntzan aurrerapausoak emateko asmoz mankomunitatean dauden udalerrietako ikastetxe guztiei. Oraingoz, poliki-poliki ari gara bidea egiten, baina *piano piano si va lontano*.

Curriculum dekretuetan soziolinguistika eta hizkuntzaren dimentsio sozialaren atalak aipatzen dira batzuetan, baina orokorregiak dira planteamenduak. Gure zeregina izan da ikuspegi zabal hori xehetzea eta honako helburuak jarri ditugu ikasgeletan lantzeko:



UEMAK Urola Kostako Berritzegunean antolaturiko saioan irakasleak, ikasleak, Berritzeguneko arduradunak eta udaletako euskara-teknikariak elkarrekin hausnarketan.

-Hizkuntza ekologiaren metafora erabiliz, inguruko hizkuntzen arteko harremanak ulertzea, ahul eta bote-retsuen arteko indar-orekak interpretatuz.

-Euskararen arnasguneak zer diren ulertzea eta herri euskaldunek funtzio hori betetzen dutela ohartzea. Berezko hizkuntzaren ideia barneratu eta subsidiaritatea ezagutzea.

-Euskararen biziberritze prozesuaz jabetzea, prozesu hori onuragarritzat hartuz gizarte osoarentzat. Hizkuntza normalizazioarekiko konpromiso aktiboa garatu.

-Hizkuntzen aniztasuna eta iraunkortasuna ulertzea, kontzeptuok modu positiboan baloratuz, eta Euskal Herriko testuinguruan interpretatzea.

-Hizkuntzen galerari eta iraunkortasun orekatuari buruzko ikuspegi kritikoa lantzea, euskararen kalitatezko iraupenari buruz hausnartzeko.

-Garapen sozial, ekonomiko eta kulturean ikuspegi globala barneratzea, globaltasunak eta tokiko-tasunean elkarri eragiten diotela ulertuz.

Helburu horiek ardatz hartuta

sortutako jardueretan ikasleak talde txikietan jartzen dira eta galdera zehatzen bidez hausnarketa lantzen da, kontzeptu teorikoez lagunduta. Bide hori jorratuz, pentsatzen dugu hizkuntzen gaineko irudipen faltsuak desegingo ditugula apurka-apurka. Horrek pertzepzioak aldatzen lagundu dezake eta, azken buruan, jarreretan eragina izango duela pentsatzen dugu. Ez dadila izan behintzat gai hauek landu ez direlako.

Harri koxkorrak banatzea

Orain arteko lezio garrantzitsuenetakoa sarea ondo jostea beharrezkoa dela ikastea izan da. Hezkuntzarena oso sistema konplexua da eta bertan hainbat eragilek hartzen dute parte: ikastetxeek, berritzeguneez, udalek, gobernuek, herriko eragileek,... Horiekin guztiekin elkartzen, asmoen berri ematen, eta aurrera begirako urratsak modu partekatuan prestatzen galtzak bete lan dugu. Baina elkar-lana giltzarria dela iruditzen zaigu, arnasguneen hezkuntza proiektuak luzaro iraun eta sustraiak ondo zabalduko baldin baditu behintzat bai.

Eta garbi ikusten dudana beste

mugarri bat euskara ikasgaitik hizkuntzen mintegira jauzia ematea izango da. Alegia, soziolinguistikari eta hizkuntzen arteko harremanei buruzko kontu hauek gaztelania, ingelesa eta frantsesa ematen duten irakasleen ardura ere bihurtzea. Bestela euskarakoa ariko da beti bere matrakarekin. Eta iruditzen zait harri koxkor horiek besteen motxiletara ere banatu behar direla, eta hizkuntza horiei dagozkien kontuak eurak azaldu behar dituztela. Esaterako, espainiera hain zabaldua izateko bidean zenbat hizkuntza kaltetu ditu? Globalizazioaren bidez, ingelesak zer arrisku dakartza hizkuntza gutxituentzat? Eman ditzatela azalpenak berriek, hizkuntza hegemoniko horiek arazoak sortarazi dituztela aitortuz, eta gaur egungo funtzio banaketa zein izan daitekeen gomendatuz.


Honelaxe bada. Ez dakit galdera erantzun dudana. Ez dakit. Baina saiatu naiz neuretik kontu nezakeena laburtzen. Iruditzen zait besteei exijitu behar dieguna gogoan izateak, ez duela geuk egin dezakegunari ez eusteko aitzakia izan behar. Beraz, goazen! Etorri nahi?

ARGITALPENAK




NOLA SORTZEN DA EURIA?

Katie Daynes - Christine Pym



ETXEKO SAGUAK

Xosé M. Gonzalez 'Oli' - Natalia Colombo



BAZEN BEHIN IPUIN BAT

Ainize Eguiarte - Alfonso Berroya

ELKAR

Nola sortzen da euria? Zein da eguzkiaren tenperatura? Nondik dator hai-zea? Irudi ederrez beteriko leihatiladun liburu honetan aurki daitezke galdera horien erantzunak. Argitalpen hau 'Ezagutu natura' bildumako ale berria dugu, eta 3 urtetik gorako haurrei dago zuzendua.

KALANDRAKA

Menditik irten eta etxe batera iritsi den karraskari familia xalo baten gorabeherak kontatzen ditu ilustrazioz beteriko album honek. Ostatu bila ari ote dira saguak? Janari bila, agian? Betiere bidea garrantzitsuagoa da helmuga baino! 3-6 urte bitarteko haurrei dago zuzendua.


SAURE

'Esku luzatu' bildumako lehen alea da komiki hau. 7 eta 12 urte bitarteko haurrei eta beraiekin denbora elkarbanatzen duten nagusiei zuzendua dago. Haur-jazarpenari aurre egiteko tresna egokia da; besteak beste, gurasoen jazarpena, bullying egoera, sexu-identitatearen arazoak... lantzen ditu.




NIRE LEHEN ESPAZIOKO LIBURUA

Emily Bone - Lee Cosgrove



ARMIARMA TXIKI BATEN EPOPEIA HANDIA

Pako Aristi - Miren Uribelarrea



TANGO IRITSITA, HIRU DIRA

Justin Richardson eta Peter Parnell - Henry Cole

TTARTTALO

Zientziaren dibulgaziorako liburua da hau, haurrei zuzendua, horiek espazioaren eta astronomiaren inguruan ikas dezaten, eta, era berean, naturaren eta bizitzaren inguruko galderak piz daitezen beraian. Horretarako, astronauta den pertsonaia izango dute haurrek bidaide.

EREIN

Berak ez du errurik armiarma jaino delako, baina, ezer egin gabe, mundu guztiak gorrotatzen du. Denek hil nahi dute, zapaldu, txikitu. Zein gogorra horrela bizitzea! Halere, bidaia miragarria egingo du gure protagonista txikiak. Bazterren ditugun guztien istorioa da hau, haienzako omenaldia.

KALANDRAKA

Bi aita dituen pinguino da. York-eko Central Park-eko zooko pinguino papozuri bikote berezi baten egiazko historia da; Rob Gramzay-k haien kabian arrautza bat jarriz kume bat izateko aukera eman zien, pinguino bikotea harri bat alferrik txitatzen ari zirela ohartu eta gero.

PROPOSAMENA

BANDA BAT ELKARTEA

Zirkua baliabide pedagogiko gisa

Zirkuak eskaintzen dituen aukera hezitzaileak baliatzen dituzte Donostiako Banda Bat elkarteko kideek 6 eta 12 urte arteko haurrekin tailerrak egiteko. Izan ere, haien esanetan, gorputza eta garapen psikomotorra lantzeko ez ezik, zirkua aproposa izan liteke giza-balioak jorratzeko ere; hala nola, talde-lana, kooperazioa, enpatia edota errespetua.



Dantza, antzerkia, musika, akrobaziak, malabareak, clown-a, oreka... hori guztia uztartzen du zirkuak, eta askotariko diziplinak harilkatzen dituelako haurrentzako baliabide pedagogiko oso egokia izan daiteke. Hain zuzen ere, zirkuak eskaintzen dituen aukera hezitzaileak baliatzen saiatzen dira Donostiako Banda Bat elkarteko Aintzane Revuelta eta Iñaki Goenaga. Alde Zaharrean dagoen Guardetxeko eraikinean zirkuko udaleku irekiak antolatzen dituzte

uztailean, Kulturarte programaren barruan; ikasturtean zehar, berriz, zirkuko ikastaroa ematen dute 6 eta 12 urte arteko haurrei bideratuta.

Gorputza eta garapen psikomotorra lantzeko ez ezik, zirkua aproposa izan daiteke giza-balioak jorratzeko ere; hala nola, talde-lana, kooperazioa, enpatia edota errespetua. “Sarri pertsona blokeatzen duten lehiakortasuna zein arau zurrunik albo batera uzteko aukera ematen digu zirkuak; aske sentiarazten gaitu”, dio Revuel-tak. Bera dantzaren eta gimnasiaren

mundutik dator. 15 urterako dantzari izateaz gainera, dantza-irakasle lane-tan ere aritzen zen. Hala, hezkuntza-ren arloa interesatzen zitzaiola ikusi-rik, pedagogia ikastea erabaki zuen ondoren. Uneotan zirkuko tailerraren bitartez batzen ditu bere bi interesgu-ne nagusiak: gorputz adierazpena eta heziketa.

Zirkuko tailerretan oinarri-oinarriz-ko lanketa egiten hasten dira Banda Bat-eko kideak; alegia, gorputz espresioa eta dantza libre jorratzen dituzte lehenik, hau da, mugimen-

duan zentratzen dira. Eta bestetik, zoruko akrobaziak ere egiten dituzte. Baina, hastapenean ez dute gorputza ez den beste erremintarik erabiltzen: “Haurrek izugarri gogoko dute euren gorputzaren bidez zer-nolako gauzak egiteko gai diren esperimentatzea”. Behin oinarri hori izanda, bestelako jarduerak ere egiten dituzte: malabareak, aireko gimnasia, antzerkia... “Baina helburua ez da zirkuko profesionalak sortzea, baizik eta pertsonak formatzea”. Eta horretarako, Revueltaren esanetan, baliabide ezin aproposagoak eskaintzen ditu zirkuak.

Talde-lana eta kooperazioa


Zirkuak duen ezaugarri hezitzaile-tariko batzuk talde-lana eta kooperazioa dira. Esate baterako, pertsonekin piramide bat osatzeko, elkar lagundu behar dute haurrek: behekoak goikoa sostengatu behar du, baina aldi berean, gora igotzen denak behekoaren gain erabateko konfiantza izan behar

du. Beste adibide bat ere jartzen du Revueltak: “Bikoteka malabareak egiterakoan, esaterako, bi pertsonaren arteko konexioa lantzen dute: elkarrekin duten koordinazioa, bestea egiten ari den horretan erreparatzea, elkarri entzutea eta elkarrengan konfiantza izatea. Balio pedagogikoez mintzo gara gu, baina haurrek hori guztia bizi egiten dute, disfrutatu, eta benetan gozatzen ari direnean esperimentatutako hori barneratu egiten dute”.

Revueltak adierazitako eran, zirkuak ez dago “ongirik eta gaizkirik”, eta horixe da tailerraren beste gakoetako bat. “Pino-a ateratzen ez bazaizu, igual kariokarekin izugarri ona izango zara, eta malabareak zurek ez badira, akaso tela puntaraino igoko zara edota clown aparta izango zara”. Revueltak eranstean duenez, zirkuak askatasun izugarria ematen du, ezer ez dagoelako ondo edo gaizki, eta gauza bera egiteko hamaika

bide egon daitezkeelako. “Norbere identitatea ez ezik, desberdinarekiko errepesta ere lantzen dugu hala”.

Zirkuan, gainera, adina axola gabe, haur guztiak batera aritzen dira eta hori ere oso aberasgarria da. Era berean, eraikin barruan, edota kanpoan, aire zabalean jarduteko aukera ematen du. Banda Bat-eko kideen kasuan Guardetxea Urgullen magalean dagoenez, hantxe dute nahikoa espazio berde. Izan ere, Guardetxea Donostiako Alde Zaharreko auzokideei espazio kultural libre bat eskaintzeko sortu zen, eta hain zuzen ere, bertan egiten dituzten tailerretara auzoko haurrak joaten dira, batik bat. Aurten gainera, Donostiako Alde Zaharreko Orixe ikastetxetik ere eurekin harremanetan jarri dira heziketa fisikoaren barnean zirkuak lantzen ari direlako. Banda Bateko kideak irekita eta prest daude eskoletatik iristen zaizkien eskaerak aztertu eta elkarlanean jarduteko.



ZIRKUA

ZER:

Zirkuko jarduerak (dantza, antzerkia, musika, akrobaziak, malabareak, clown-a, oreka...) lantzeko tailerrak. Modu autonomoan nahiz ikastetxeekin elkarlanean.

NOIZ:

Ikasturtean zehar astean arratsalde batez edota uztaileko udaleku irekietan.

NON:

Donostiako Alde Zaharreko guardetxean.

ARDURADUNAK:

Banda Bat elkarteko Aintzane Revuelta eta Iñaki Goenaga.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

kulturarte@guardetxeabandabat.org helbidera idatzi edota 678105262 telefono zenbakira deitu.

ATZEKO ATETIK



TXIKIAREN HANDITASUNA

GARBIÑE PETRIATI IJURRA

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN BEHATOKIKO ZUZENDARIA

Badira urteak eskola utzi nuela baina *Atzeko atetik* atalerako lerro hauek idaztea proposatu zidatenean, berehala etorri ziren nire gogora eskolarekin lotutako oroitzapenak.

Guztiok gogoratzen ditugu gure eskola urteak. Eskolara sartu eta irtenak, gure abentura eta bihurrikeriak, maistrak arbelera ateraraziko gintuen beldurra, ditzosozko etxeko lanak eta notak...

70. hamarkadako eskola konfesionala zen, kristau erlijioa gauza guztien gaineratik, gelan hori azpimarratzen zuen ikurra, astero dotrina eman beharra, gelan hornidura gutxi, erlijioak eta momentuko aginte politikoak markatzen zuena...

Gelako agintea maistrak zuen, autoritarioa, zigoren bidez funtzionatzen zuen zuzentzeko. Berak esaten zuena besterik ez, errespetua eta beldurra. Gelako ikasle kopurua altua zen, irakasle bakarra 35-40 ikaslerentzat. "Ikasle ona" ez bazinen zigorra eta gutxiespena.

Gaur egun nire herriko eskolak erai-kin berebean segitzen du baina ez da eskola bera. Egungo egoerarekin parekatzen badugu, zertan aldatu da eskola hura? Formetan eta edukietan

asko aldatu da, zalantzarik gabe. Egun euskaraz ikas daiteke, irakaslearen profila aldatu da, ikasleak anitzagoak dira, gelak eta ikastetxeak behar duten guztia dute, kolore eta irudi biziak, informazio eta komunikaziorako teknologiaz hornituta, ikasle-irakasle ratioa aldatu egin da...

Gaur egungo jendartearen ezaugarriak eragina izan du eskolaren aldaketan. Eta, noski, 70. hamarkada hartako jendartearen ezaugarriak zituen orduko eskolak. Horrela, esan daiteke eskola beti dela garaiko jendartearen isla. Aldaketa ekonomikoak, politikoak, kulturalak, demografikoak jendea aldatzen dute eta eskola aldatzera behartzen dute.

Eskola, azken finean, sistemaren tresna bat baino ez da. Momentu historiko bakoitzean dituen beharrei erantzuteko tresna bat.

Baina desberdintasunak desberdintasun, bada garai hartako zein egungo nire herriko eskolak duen ezaugarri bat: eskola txikia izaten segitzen du. Eta oraintxe bertan ume baten eskolatzearen gaineko erabakia hartu beharko banu, ez nuke dudarik: eskola txikia aukeratuko nuke.

Iruditzen zait harreman estuagoa eta hurbiltasun handiagokoa sortzen

dela guraso, ikaskide eta irakasleen artean. Eskolan errekurtsu moduan errazago erabil daitekeela natura. Aiseago lor daitekeela ingurua eta bere ezaugarrietan integratzea eta bertakotzea. Aukera gehiago eskaintzen dituela ikasleari arreta pertsonalizatuagoa emateko. Aberastu egiten duela maila ezberdinetako ikasleak elkarrekin jarduteak eta lagundu egiten duela integrazioan ere.

Batzuetan edukia bera baino garrantzitsua da transmititzeko modua eta, zentzu horretan, eskola txikiak programa bera moldagarriagoa egiteko aukera ere eskaini dezake.

Esaterako, eguraldi ona aprobetxatuz, matematikako klasea atzeratu eta kanpora atera botanika klasea jasotzera. Horrela, ikasleak muntaketa-kate batean murgilduta dauden sentsazioak, ordutegi eta programa zurrunetatik ihes egiteko aukera baliatuz.

Herria, komunitatea, ingurua eta eskolaren mundua hurbilago daude ikastetxe txikietan.

Ezaugarri hauengatik guztiengatik uste dut eskola txikiak alderdi positibo gehiago dituela desabantailak baino. Nire irudikoz zaindu beharreko guneak.

Escola Txikien Festa

Ekainak 12





Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak

Ekainaren 28an, 29an eta 30ean LEIOAN
Uztailaren 4an, 5ean eta 6an DONOSTIAN



Hainbat ikastarotan izena emateko aukera dago:

LEIOAN: *Laguntza inklusiboa eskoletan - Eskola libre eta demokratikoak - Mindfulness eta TDAH: arreta barrutik lantzen - Psikomotrizitate praktika - Motibatu nahi? - Nola saihestu gatazkak - Gorputzaren bidez arreta garatzeko teknikak.*

DONOSTIAN: *Adimen anitzak eta autoestimua; motibazioaren osagai - Konpetentzien ebaluazioa Bigarren Hezkuntzan - Mindfulness edo arreta osoarekin IRAKURTZEN - Motibatu nahi? - Ipuinak kontatzen irudi-liburuak lagun - Entrenamendu Mentala - Haurren autoestimua - Antzerki teknikak - Espresio tailerra - Haurrentzako masajea.*

Informazioa eta izena ematea www.hikhasi.eus helbidean